

Lanbide Heziketa institutuan bi ikasketa berri izanen dira hurrengo ikasturtean / 9

Nafarroa 0-3 plataformak deituta haur eskoletan mugagabeko greba hasiko da etzidamu / 5

Altsasuko Udalak herrian dagoen etxebizitza eskaeraren argazkia egin du / 11

Juan Luis Maizak 55 eta 59 urte bitarteko Espainiako Duatloi Txapelketa irabazi zuen Avilesen / 18

'Nire baitaturik' ikuskizunarekin itzuliko da Lorena Arangoa Irurtzungo eszenatokira / 22-23



Mendizaleen festa

1.174 mendizale Sakanako Ibilaldia osatzeko prest / 17



Langileen aldarrikapenak kalera

Maiatzaren Lehena dela eta mobilizazioak izanen dira igandean / 8-9

Espaziorako antenagintzan

Europako Espazio Agentziaren begiradapean, espaziora jaurtiko diren suziriatarako eta espazio-ontzi baterako antenak diseinatzeaz arduratzen da Anteral enpresako ikerketa eta garapen ingeniari den Unai Beaskoetxea Gartzia altsasuarra

Aitziber Grados Muñoa ALTSASU
Unai Beaskoetxea Gartzia 1987an jaiotako telekomunikazio ingeniari altsasuarra da eta gaur egun Anteral deituriko enpresan lan egiten du ikerketa zein garapenean. Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP) kokatzen den enpresa horrek antena, pasibo eta radarren teknologia berritzailea garatzen du, batik bat. Beaskoetxeak hiru urte daramatza enpresan eta une honetan espazioarekin loturiko bi proiektu garatzen dihardu Europako Espazio Agentziaren (ESA, ingelesez) begiradapean, hain zuzen espaziora jaurtiko diren hainbat suziri zein espazio-ontzi baterako antenak diseinatzen. Astronauta izateko bere txikitako ametsetik gertuago, Beaskoetxeak dio "bi proiektu hauei esker espaziora bidaiatzearen ametsa hatzekin ikutzea bezala" dela. Betidanik sentitu du espazioarekiko begirunea, eta horri lotuta lan egiteko bide guztietatik telekomunikazioen bidea aukeratu zuen. Gaztetan ikusi zituen hainbat pelikulek; hala nola Star Wars, eta Legozko espazio ontzi jostailuek, nolabait "espazioa eta lurraz haragoko lekuaz interesatzer" eraman zuten. Txikitako interes inozotik, bere ikasketak horretara bideratzeraino. Haren esanetan "astronauta izateko hainbat aukera daude, eta hainbat ikasketa eginda ere badago espazioan bukatzeko aukera". Berak telekomunikazio

ingeniaritza ikasketak egin zituen NUPen: gradua, masterra eta doktoretza. Doktoregoaren ondoren bi urte eman zituen unibertsitateko beste hainbat proiektu garatzen Anteral enpresako kide izatea eskaini zioten arte.

Nafarroatik espaziora

"Nafarroatik espaziora" hala adierazten du Anteralek bere web orrialdean. 2010ean sortu zen Iruñeko enpresa horrek: espazioaren sektorerako, telekomunikazio sektorerako, industriarako eta segurtasunerako antenak, pasiboak eta radarrak sortzen ditu teknologia berritzaileenaren garapenaren bitartez. Enpresaren hastapenetan, NUPeko lauzpabost irakasle batu ziren eta haien ezaguerak zein ikerketarako gogoak batuz Anteral sortu zuten. Hasieratik jada "sateliteendako antenak egiten zituzten, eta pixkanaka enpresak indarra hartu zuen". Batik bat, unibertsitatek ateratzen ziren ikasleek osatzen zuten enpresa" hala adierazi du Beaskoetxeak. Gainera, denborak aurrera egin ahala, "teknologia berrien sorrerarekin bertako ikerlariak ezaguer berriak lortzen joan ziren, gaur egun den hamasei kideko enpresa lortu arte". Batez ere antenak sortzen dituzte, Beaskoetxearen bi proiektuetan protagonista dira haiek, baina antenen komunikazio sistema barruan dauden filtroak, erabilera ugari dituzten poltsikoko rada-

rrak eta Europara zein Espainiar Estatuko beste enpresetarako proiektuak eta sistema osoak ere garatzen dituzte.

Europako Espazio Agentzia

Espazioarekin lotura estua dute Beaskoetxeak parte hartzen duen bi proiektuek. Biak, Europako Espazio Agentziak (EEA) gidatutakoak dira "proiektuen nondik norakoak arautzen ditu eta kasu batzuetan proiektuak garatu ahal izateko dirua jartzen du". EEAK espaziora zerbait bidaliko duen enpresa ikuskatzen du; "ikusteko ea honek jarraitu beharreko arauak betetzen dituen". Bera bada ere proiektuen jarraibideak ematen dituen, Beaskoetxeak dio "enpresa bakoitza dela proiektuaren kudeaketa eta ikuspuntua nola eraman erabakitzen duena". Kasu honetan, Beaskoetxeak egindako lana ere ikuskatzen du

"PROIEKTU HAUEI ESKER ESPAZIORA BIDAIATZEKO AMETSA HATZEKIN IKUTZEA BEZALA DA"

"ENPRESARA IRISTEN DIREN ESPAZIOAREKIN LOTURIKO PROIEKTU GUZTIAK LANTZEA NAHIKO NUKE"



Unai Beaskoetxea Gartzia telekomunikazio ingeniaria.

EEAK, bi proiektu garrantzitsuetan parte hartzen baitu Anteralek eta Beaskoetxeak berak egindako antenen diseinuek; hala nola MIURA 1 suziriaren antenen diseinuek zein Space Rider espazio ontziaren antenen diseinuek.

MIURA 1 eta MIURA 5 suziriak

2019. urteko irailean jaurtitzera aurreikusita zegoen MIURA 1 izeneko suziria. "Hainbat arazo teknikoengatik" baina, aurtengo abenduan jaurtiko dutela adierazi du Beaskoetxeak. "Sateliteak jaurtiko dituen lehenengo suziri espainiarra da, eta berrerabilgarria" PLD Space enpresak sortu duena Elxen. Horrek sortu ditu suziria bera, motorra eta hobiak; baina GMV enpresa arduratu da suziriaren abionika fabrikatzeaz. Bi enpresek, EEArekin batera, Espainiar Estatuan egongo diren suziri jaurtigailu

"berrerabilgarri eta suntsiezinak" sortu dituzte, eta haien komunikazio sistemarako Anteral enpresa aukeratu zuten. Beaskoetxeak eta proiektuaz arduratzen diren kideek, suziri horietarako hiru antena garatu eta diseinatu dituzte. Horietako bi "suziriak lurraekin komunikatzeko antenak" dira, eta hirugarrena "suziriaren lokalizaziorako antena" litzateke. Suziriaren jaurtiketan "lurreko kontrol estazio-tik dena programatuta dagoela" dio Beaskoetxeak, baina, hala ere, "ezinbestekoa da antenen beharra, ikusteko eta konprobatzeko programatutako suziriaren mugimenduak eta bidea ondo betetzen direla". Elinberri argibide hiria orrialdearen arabera, MIURA 1 suziria "150 kilometroko altuera hartzeko prestatuta dago". Beaskoetxearen aburuz "kontzeptu proba" deiturikoa dela dio, hasiera batean "suziri



EGOKI
Ventanas PVC Leihok
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



horren bitartez hainbat enpresa pribatuk sateliteak orbita baxura jaurtiko dituzte makina bat helbururekin; zientzia ikerketak egiteko adibidez", baina "suziri potentea MIURA 5a izango da, lehenengoa baino handiagoa izango dena eta zama handiagoa eraman ahal izango duena". Suziri horrek jaurtiko dituzten sateliteak izateaz aparte "ikerketa eta esperimenterarako bide ere izango dira" dio. Azken hau, 2024an jaurtiko dute eta Anteral proiektuaren parte izatea espero du Beaskoetxeak.

Space Rider espazio ontzia

EEAren foku pean garatutako proiektua da hori ere, eta Thales Alenia Space Italia enpresa handia da Space Rider misioaren ardura duena. Kasu horretan, enpresak aukeratu zuen Anteral proiektuan parte hartzeko: lur-reko orbita baxuan askotariko misioak garatuko dituen tripulatu gabeko ibilgailu espazial berrerabilgarri baterako antenak diseinatzeko, hain zuzen. Space Rider-a Vega-C izeneko suziriaren bitartez, Europak Guyana Frantsesean duen espazio portutik espaziora jaurtiko den espazio ontzia da eta 2023. urtean jaurtitzea aurreikusita dago. Beaskoetxearen arabera "suziri horrek beste enpresa batzuek garatutako antenak ditu", baina kasu horretan "Anteralek, suziriak espazioan utziko duen Space Rider espazio ontzirako diseinatu ditu antenak".

Bi antenna mota diseinatu dituzte Beaskoetxeak eta proiektuko lankideek; batetik, FTS (Flight termination system) antenna eta bestetik baliza antenna. Lehenengoa "espazio ontziaren segurtasun sistemari lotutako antenna da, arazoak egotekotan seinalea jasoko duena eta ontzia suntsitzeko abisua emango duena". Bigarren antena, ordea, "espazio ontziaren lokalizazioaren gaineko informazioa batuko luke, lur-reko espazio estaziotik uneoro jakin dezaten non dagoen". Beaskoetxeak "futurista gisa" deskribatu duen espazio ontzi horretan, "laborategi txiki ugari egongo dira, non EEARI baimena eskatu dioten enpresek ikerketak eta probak egiteko aukera izango duten". Biomedikuntza, farmazia, biologia eta zientzia fisikoko alorretako ikerketak izango dira. Beaskoetxeak harro adierazi du: "zoragarria

da pentsatzea Thales bezalako enpresa handi batek zurea aukeratu duela bere proiektua garatzeko".

Antenen diseinu prozesua

Anteralek egiten dituen antenen diseinuan "ikerlari edo langile nagusi bat dago" haien lanketa prozesuan egunero egoten dena. Bi proiektu horien kasuan, Unai Beaskoetxea da horretan dabilena. Haren esanetan "antenen diseinua bukatu eta haien mekanikaz arduratzen den mekanikariarekin hitz egiten du, eta bera da antenna babesten duen metala sortzeaz arduratzen dena bai eta antenaren mekanismoaren kargu hartuko duena". Hala ere "antenen diseinua eta mekanika garatzeko prozesuan, taldean, badaude aholkulari lanak egiten dituzten lankideak ere".

Berez, EEAK, proiektu bakoitzaren beharren arabera, antenak diseinatu behar duen enpresari zehazten dizkio "antena zein frekuentzian jardun behar duen, adibidez" baina, hala eta guztiz ere, "ezaugarri horiek aurrez zehaztuta egon ohi dira". "Behar den antenna mota, haren pisua eta halako nolakotasunak diseinatzaileak enpresa berarekin negoziatzen ditu, eta EEA da nolakotasun zein exijentzia horiek ondo betetzen direla egiaztatzeaz arduratzen dena" dio.


Hala kontatu du Beaskoetxeak, "behin ideia ateratakoan, ordenagailuko programa batekin diseinua egiten da, probatu egiten da eta emaitzak aurkezten dira". Ez da lan samurra, "zerotik hasi eta azken diseinua izateraino prozesuan hainbat bilaketa egin behar direla" dio "interneten ikertu, antenak kontuan izan behar dituen frekuentziak aztertu, beste enpresek erabiltzen dituzten baliabideak ikusi, beste suziri batzuk erreferentziat hartu...".

Beraz, prozesua zerotik hasten denetik fabrikaziora salto egiten duen arte "hainbat proba egin behar dira, hala nola, antenna espazioan nola erradiatu zitekeen ikuskatu, zenbateko potentzia jasango lukeen zehaztu... antenek potentzia eta espazio mugak baitituzte" hala dio Beaskoetxeak.

Antenen fabrikazio prozesuaz beste enpresa batzuk arduratzen dira. Aitortu du "ez dela nahikoa edozein fabrikazio mota, eta EEAK ikuskatzen duela fabrikazioaz arduratuko den enpresa gai den



Unai Beaskoetxeak MIURA 1erako egindako antenaren hasierako diseinua. UTZITAKOIA



Anteralek diseinatutako radar bat. UTZITAKOIA



Huawei taldearen 6G teknologiarako antenak, Anteralek egindakoak. UTZITAKOIA

antena horiek eskatzen duten exijentziari erantzuteko" nolabait "kalitatea bermatu ahal izateko". Une honetan, Anteral enpresak Italiako eta Frantziako enpresa batzuekin du harremana fabrikaziorako.

Probak

Anteralek, antenna berdinen hainbat modelo egiten ditu haien eraginkortasuna probatzeko. Bi modelo suziriarendako eta beste bat haiek bere kabuz funtzionatzen dutela egiaztatzen. Suziri baten jaurtiketan egon daitezkeen huts egiteengatik galdetuta, Beaskoetxeak dio "gerta daiteke suziriaren motorean akatsa egotea, edota satelitea askatu behar duenean ez egitea" baina kasu horretan "arazoa zein den ikertzen dute hurrengoan huts egite hori ez errepikatzen". Arazoak hainbat izan litezke "bai suziriarenak eta bai antenen komunikazio sistemarenak".

Etorkizunera begirada

Beaskoetxeak enpresak azken hiru urteetan egin duen gora-kadarekin "harrituta dagoela" dio; enpresak parte hartu duen proiektuak ospe handiko entitateenak baitira: Thales, Huawei, NASA, SpaceX, unibertsitateak... "Aintzat hartetako kontua dela" dio, gisa horretako enpresa handiek "gurea bezalako enpresa batekin harremanetan jartzen direnean, proiektu txiki bat garatzeko bada ere, poztekoa da". Batez ere "ekonomikoki hazteko aukera paregabea delako, baina hazkunde eta ikasketa teknikorako bidea ere badelako". Aitortu du "inposatzen dizkieten exijentzia zein erronkek enpresa hazi egiten dutela eta superaziorako aukera direla".

Bitartean, eta egoera pertsonalean Beaskoetxeak dio "nahiko nuke enpresari iristen zaizkion espazioarekin loturiko proiektu guztiak landu ahal izatea" hori baita indarrez gogoko duena. Astronauta izateko bere ametsetik gertuago egon nahiko luke pixkanaka, eta ziur asko bere ametsaren bide bereetik doazen "telekomunikazio ikasleei" enpresan sartzeko aukera eskaintzea da gustatuko litzaiokena: "enpresa handitu eta Nafarroako ikasleak bertara batu, antenna hoberenak egiten dituen enpresa garelako esan ahal izateraino".



ASTEKOA

RAF ATXURI

Ibrahima Balde. Miñan.

Irakurkizun daukat liburua. 2020an Susa argitaletxeak kaleratu zuenean, laudorio eta goraiapamen ugariz hartu zuen kritikak eta publikoak Amets Arzallus eta Ibrahima Balderen sorkaria.

Kazetari eta bertsolari hendaiarra txunditu zuen migrante honen kontakizunak eta liburu-forma eman zion Ametsek. Gurean hedapen handi samarra izan ondoren, hainbat hizkuntzatar iritsi da Miñan (Anaia txikia) eta berriki Erromako aita santuak ekarri du hizpidera hegazkin bateko pasabidetik.

Ibrahima Balderen oinezko eta oinazeko ibilbidea beste miloika migranteren oinazebidea da. Beste bertsolari batek, Xalbadorrek, aspaldi samarrean Pirinioko bazterretan hildako migranteen tragedia salatu zuen gai hau nahiko ezezaguna zenean. Bidasoan, Mediterraneoan, Atlantikoan... Zenbat milaka hildako jasateko prest dago mundu aberats zibilizatua?

Ukrainako gerrak berriro paratu gaitu kontraesan ezinago gordinen aurrean. Errefuxiatu zuri, kaukasoa eta kristauei bai, ateak eta leiho guztiak zabaldu, eta paperak errazten dizkiegu. Gainerakoekin nonbait legeak lege dira.

Horixe da Bergogliok ahobizarrik gabe, argi eta arrunt garbi salatu duena: ukrainarrei ematen diegun harrera bertsua eman behar diegu beste jatorrietakoei. Orain Europa aberatsak bizi-bizi eta di-da prestatu duen arkitektura logistiko eta burokratiko posiblea beharko luke, seguruenez patxadatsua, baina antzeko eraginkortasunarekin beste migrante batzuekin.

Europako herrialdeetan elkartasun sareak sortu eta finkatzen ari dira, baina botere politikoaren konpromisoa falta da. Hortaz, Bruselan eta Estrasburgon erabaki ausartak hartu bitartean, jendarte zibilaren ahalegina eta emana ezinbestekoak izango dira.

Eta Europa gehienez, eskuin muturra hazten etengabe.

HARA ZER DIEN

Helduon eredu, nerabeen ikasgaia

SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUAK

Nafarroan gero eta gehiago kontsumitzen da alkohola, eta gero eta gazteago hasten da edaten. Nafarroako nerabeen erdia baino gehiago mozkortu dira azken urtean eta 13,6 urterekin hasten da alkohola edaten. Datu kezkarriak, arlo ezberdinetan beti ondorio negatiboak dituztenak: familiar, gizartean, heziketan, lanbidean eta ekonomian.

Horiek dira Espainiako Bigarren Hezkuntzako Drogen Erabilerari buruzko XIV. Inkestatik (Estudes 2021) Osasun Ministerioak emandako emaitza nagusietako batzuk. Nafarroako 17 ikastetxetako 824 ikaslek hartu dute parte. Ikerketa honen arabera, Nafarroa Estatu osoko alkohol kontsumoaren eta mozkorraldien liderra da berriro.

Bingedrinkingean ere, Nafarroa Estatuko bigarren erkidegoa da. Honetaz askotan

hitz egin dugu eta gure kezka azaldu ere Prebentzio Programetan. Bingedrinkina, betidanik, "atrakioia" deitu dioguna da. Hau da, kopuru handiak edatea oso denbora laburrean. Praktika honek kontsumo ohituren aldaketa eragin du eta oso hedatuta dago gure erkidegoan, pandemiak indartu du gainera.

Inkestak beste datu kezkarri batean jartzen du atentzia; gazteen kontsumo genero ikuspegitik. Aldaketa izugarria eman da azken urteotan eta esan dezakegu generoari dagokionez, kontsumo handiagoa izan dela alderdi gehienetan emakumeen kasuan. Emakumeek gizonen baino maizago probatu dute alkohola, eta gehiegizko kontsumoak ugariago egin dituzte 14 eta 17 urte bitarteko adin taldean.

Honek guztiak hausnarketa soziala eskatzen du nahi eta nahiez. Alkohola oso barneratuta dago gure gizartean, eta haren kontsumo normala dela ikusten dugu; horrek, aldi berean, kontsumoen arriskuak

minimizatzen ditu. Alkoholarekin irudi onak eta jaiarekin eta dibertsioarekin duen loturak, pertzepzio positibo bat sortzen du eta horretan hezten ari dira gure nerabeak.

Bestalde, pertzepzio horren ondorioz, nerabeen alkohol kontsumoa eta gehiegizko kontsumoa ere normaltasun batean barneratzen ari gara helduok, eta onartu egiten dugu nerabeek edan egin behar dutela, gehienok egiten baitute. Arriskutsua den praktika bat onartu dugu inongo hausnarketa egin gabe. Zergatik? Ez dugulako barneratzen, oraindik ere, alkohola droga bat dela. Gauzak aldatzen dira kontsumo kanabisarena denean, orduan bai kezkatzen gara eta ez gara konturatzen, askotan, alkoholaren kontsumo kanabisaren kontsumora eraman ditzakeela. Honekin ez gaude ados, baina ez gara konturatzen kontsumoaren banalizazioa guk adostu dugula; Gizarte bezala, ezer esan gabe eta, aldi berean, horregatik guztiagatik, dena esaten. Helduon eredu, nerabeen ikasgaia.

GUTUNA

Itxaropen faltsuaren iruditegia

MANEX INSAUSTI OLASAGARRE

Iada bi urte pasa dira pandemiaren aitzakiapen pobretze eta eskubide politiko zein zibilen urraketa progresibo batean murgildu gintuztenetik. Oraingo honetan, gauzak hobera ez eta Ukrainako gerraren harira, bizi ballabideek modu bortitzean gora egin dute.

Bi eszenatoki hauek diruditen baina antzekotasun gehiago dituzte. Alde batetik, bizitzaren garestitzea ulertzeko fenomeno bakar gisa kontsideratzen dira, komunikabideetan zentraltasun osoa hartu dute egoeraren azalpen bakarra balira bezala. Bestalde, biak bizitzaren garestitzea ahalbidetu duten aitzakiak dira. Hala ere, eszenatokiak krisialdi kapitalistaren baitan ulertu beharrean gaude, izan

ere, hartu diren neurriak oligarkia eta enpresari handien irabazi tasak mantentzeko erabili baitira; langile klasearen interesen kontra, bere erosteko ahalmenaren gutxitzea eragin dutelarik. Hartara, azken bi urteetan erregaiekin prezioa ia bikoiztu egin da, azken urtean ia sei aldiz igo dira argindarraren (%589,18) zein gasaren (%561,8) prezioa eta erosteko saskia eritimo motelagoan, baina etengabe ari da garestitzen.

Energiaren prezioa murrizteko zerga jaitsierak proposatu dira, Estatuaren diru sarrera gutxituz. Bestetik, NATOk eskatuta defentsa militarerako gastua handituko da, beraz, neurri horiek martxan jartzeko nonbaitetik murriztu beharko da. Hala, Estatu kapitalistek kalitatezko zerbitzu publikoak eskaintzeko interes eta baldintzarik ez duten honetan publikoaren defentsa itsua egitea dirudun eta langileentzako zerbitzu

ezberdinak de facto onartzen direla adierazten du. Iraganeko Ongizate Estatura bueltatzeko gogoia erakusten du sozialdemokraziaren politikak, nahiz eta azken urteetako egoerak kontrako joeran gaudela baieztatzen duen. Ezker erreformistaren nostalgien eta eskuin muturraren gorakadaren aurrean Euskal Estatu Sozialista da langileriaren ongizate bermatu dezakeen bakarra.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
 948 564 275 (3 luzapena)
 619 821 436
 Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
 618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Joxe Aldasoro Jauregi

Kolaboratzailea:

Aitziber Grados Murioa

Lege gordailua: NA-633/1995
 Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidor Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
 eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
 31800 Altsasu
 948 564 275
 618 882 675



Gobierno de Navarra
 Nafarroako Gobernua

Haur eskoletan mugagabeko greba

Astelehenean hasiko da. Nafarroa 0-3 plataformak haur eskoletako langileendako lan baldintza duinak eskatzen ditu besteak beste, hezitzaile bakoitzak haur gutxiago zaindu behar izatea eta soldatak igotzea eskatzen du

SAKANA

Nafarroako Gobernuak azken unean iritziz aldatzen ez badu, herrialdeko haur eskoletako langileak mugagabeko greba hasiko dute astelehenean. Nafarroa 0-3 plataformako Eider Garde Mazkianek azaldu duenez, "Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren (NUKF) artean sortu duten koordinazio organoan parte hartze aktiborik gabe, Hezkuntza Departamentuaren konpromiso zehatzik gabe eta egutegirik gabe... Egin zaigun eskaintza guztiz eskasa da, eta horregatik bakarrik ez dugu greba bertan behera utziko".

Gardek azaldu duenez, gobernuaren eta NUKFen bilerara gonbidatu gisa joan ziren. Plataformako kideak azaldu duenez, asteazkeneko bileran "mahai gainean jarri genituen gure aldarrikapenak: 0-3 zikloa landuko duen negoziazio mahai bateko partaide aktibo izateko eskaera. Gainera, bilera baliatu genuen haur eskoletan egunero aurre egin behar diegun muturreko egoera eta gure lan prekarietatea deskribatzeko".

Plataformako kideen iritziz, Carlos Gimeno Gurpegi hezkuntza kontseilaria "harrotu" egin zen, "bere gobernu 0-3 inguruan



Haur eskolen duintasunaren alde Arbizun egindako kontzentrazioa. ARTXIBOA

egiten ari den politikez, eta gure patronala Udalak direla azpimarratu zuen. Hitza hartzen utzi zigun aldi bakanetan saiatu ginen azaltzen gobernu honek egindako keinuak oso eskasak direla eta zikloarekiko konpromiso politikoa beharrezkoa dela argitu genuen". NUKFko presidente Juan Carlos Castillo Ezpeletak gobernuari azaldu zionez, "ez zaigu gustatzen Hezkuntza Departamentuak erantzukizun guztia toki administrazioen esku uztea. Zikloaren finantziarioa ez da nahikoa".

Organoa

NUKF-k Hezkuntza eta Lurralde Kohesiorako departamentuek Haur Hezkuntzako Lehen Zikloari buruzko koordinazio organoa eratu due, baina plataforma ez da kide izanen. 0-3 zikloko egoeraren azterketa egin, LOMLOE hezkuntzari buruzko lege berriaren esparruan hezkuntza ikuspegi bateratua izateko eta Nafarroaren errealitatera egokitutako kudeaketa ereduak proposatuko ditu, gobernuak EH Bilduren hartutako konpromisoaren arabera.

Estalpearen eraikuntza atzeratu egingen da

Plazan hura eraikitzeo Arbizuko Udalak egindako deialdira ez da enpresarik aurkeztu

ARBIZU

Arbizuko Udalak jakinarazi duenez, plazan estalpea eraikitzeo lanak egiteko ez da enpresa bat bera ere aurkeztu. Udal ardura-dunek bi arrazoi eman dituzte lanak egiteko eskaintzarik ez jasotzeko: "eraikuntza sektoreak bizi duen lan karga eta proiektua egin zenetik gaur egun arte oinarrizko materialek izan duten prezio igoerak dira". Estalpea eraikitzeo Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza izanen du. Arbizun gertatutakoa erkidegoko udal askori gertatzen ari zaiela jakitun da foru administrazioa eta, horregatik, Arbizuko Udalarri lana egiteko epea 2023ko iraiera arte luzatu dio. Dirulaguntza ere mantenduko du. Arbizuko Udala estalpea eraikitzeo aukerak aztertzen ari da.

Bestalde, Tokiko Azpiegitura Planari buruz galdetu zien udalak arbizuarrei. 14 erantzun jaso ditu eta lehentasunezko jo dute Fernando Urkia kalearen zati bat berritzea. Beste bi lanetarako ere laguntza eskatuko du udalak: kiroldegiko klimatizazio sistema aldatu eta berritu eta udaletxeo bulego eta artxibategiko solairua birmoldatu. Kontsultaren bidez ekarpenak ere jaso ditu udalak eta esker ona azaldu du.



Lanengatik espaloia itxita dago.

Irurtzunen estalpea eraikitzeo lanak hasi dira

Barazki gunetik martxo akaberan karpa kendu ondoren, langileak hilaren 4an hasi ziren estalpea eraikitzeo lanak egiten. Euri urak eta argiteria bideratzeko lanekin hasi dira langileak. Garilean ospatzen diren Irurtzango festetarako lanak despedituta egon behar du lanak. Estalpeak 276.500 euroko aurrekontua du, udalaren diruzaintzako gerakinarekin finantzatu da lana.

Udalak Etxaleku tabernaren kudeaketa eman nahi du

Udaletxearen beheko solairuan dagoen tabernaren kudeaketa enkante bidez eman nahi du Ziordiko Udalak. Lizitazioa 1.587 eurokoa da (BEZ kanpo). Etxaleku taberna errentan hartzen duenak esleipena egiten denetik urte batez kudeatuko du. Kontratua urtero berritzeo aukera egon da, baina gehienez hiru luzapen onartuko dira.

Goierri
eskola



AUKERATU ZURE BIDEA

GIZARTE ZERBITZUAK • TEKNOLOGIKOA • ADMINISTRATIBOA

Eman izena www.goierrieskola.eus helbidean

EZAGUTU EZAZU
LANBIDE HEZIKETAKO
GURE ESKAINTZA

ATE IREKIAK
Maiatzak 7, larunbata
11:00etan

Pentsioa KPI errealarekin eguneratzeko, sinadurak

Asteazkenetan, 11:00etatik 13:00etara, Altsasuko Iortia kultur gune parean jasotzen dituzte sinadurak. Sinatzaileek eskatzen dute pentsiodunek galdu duten %3ko erosteko ahalmena konpentsatzea eta gutxieneko pentsioak handitzea

SAKANA

Estatuan dauden pentsio duinen aldeko hainbat plataformak sinadura biltzeko bateratuari ekin diote. Garagarrila bitartean sinadurak biltzen ariko dira eta ondoren haiek Kongresuan aurkeztuko dituzte. Pentsio duinen aldeko mugimenduak sinadura biltzeko bidez hiru eskaera egingen die diputatuari. Alde batetik, "aurtengo eta hurrengo urteetako pentsioen erosteko ahalmena bermatzea". Horretarako, pentsioen balioa KPI errealaren arabera handitzea eskatu dute, "2011ko erreforma egin aurretik hala egiten zen". Horrekin batera, "pentsioek izan duten eros ahalmenaren %3ko galera konpentsatzea" exijitu dute.

Bestetik, sinatzaileek diputatuari eskatuko diete berma dezatela pobrezian atalasetik beherrako pentsiorik ez daitezela izan. Horretarako, "soldata eta pentsioetan genero arrakala kendu eta gutxieneko pentsioa lanbide



Azokara joandako gizonetakoak sinatzen.

arteko soldatarekin parekatzea" eskatu dute. Eta Europako Gutun Sozialari segituz, lanbide arteko soldata batz besteko soldataren %60 izatea aldarrikatu dute. Azken eskaeraren bidez, sinatzaileek "pentsio publikoak dui-

nak eta behar adinakoak bermatzea" eskatzen diete diputatuari. Baita Pentsio Sistemaren izaera publikoa bermatzea ere. Horretarako, 2011, 2013 eta 2021eko erreformak baliorik gabe uztea exijitzen dute.

Osasun publiko eta kalitatezkoaren alde

Asteartean, 11:00etan, Irurtzun, Etxarri Aranatz eta Altsasuko osasun etxeen parean bilkurak egingen dira

SAKANA

Aurretik zetorren pertzepzioa, baina pandemiarekin handitu egin da osasun publikoak okerrera egin duela. Hori zuzentzeko sortu zen Nafarroako Osasun Plataforma. Haren hainbat mobilizazioetan parte hartu ondoren, ibarreko hainbat pertsonak Sakanako Osasun Publikoaren aldeko Plataforma sortzea erabaki zuten apirilaren 4an. Nafarroan eta Sakanan osasun publiko duina izatea, eta horretarako, beharrezko giza eta material baliabideak izatea aldarrikatzen



Otsailean hasi ziren sinadurak biltzen.

ditu. Plataforma sortu berriak osasun publiko eta kalitatezkoaren defentsan kalera ateratzera deitu ditu sakandarrak. Asteartean ibarreko hiru osasun etxeen parean bilkurak egingen dira.

Sakanako plataformak deitutako hiru bilkura horietan ere sinadurak bilduko dituzte. Estatuko Osasun Publikoaren Pribatizazioaren kontrako Koordinakundeak Herri Ekimen Legegilea sustatu du. Haren bidez sinadurak bildu eta lege proposamena Kongresuan aurkeztu nahi dute. Sinatzaileek osasun unibertsal, %100 publiko eta kalitatezkoa berreskuratzea eskatzen dute. Astearteko bilkurez aparte, Herri Ekimen Legegilearen aldeko sinadurak igandean ere jasoko dituzte, 13:00ak aldera, Iortia kultur gune parean.



Iturmendiarrak maiatza zutitu ondoren hura finkatzeko lanean. ARTXIBOA

Maiatzak zutitzeko garaia iritsi da lau herritara

Igandean lan horri ekingen diote etxarriarrek, bakaikuarrek, iturmendiarrak eta ziordiarrek

ETXARRI ARANATZ / BAKAIKUJ / ITURMENDI / ZIORDIA

Ibarreko lau herritan bost maiatza jasoko dituzte igandean. Goiztiarrenak **bakaikuarrek** izanen dira. 09:00etan mendian izanen dira, mokadu bat jan eta pagoaren bila joanen dira Idoitxarrerara. Hura moztu eta Hartzabalera eraman ondoren, eguerdi aldera hasiko dira maiatza jasotzeko lanak egingen. (Argibide gehiagorako, irakurri azken orriko elkarrizketa). Baizako gainaren bestaldean **etxarriarrek** orduan aukeratutako pagoa moztzen hasiko dira, aurretik gosaria janda izanen dute. Eta Hartzabalera bizkar gainean eraman ondoren 12:30 aldera hasiko dira maiatza zutitzeko lanak.

Ziordian bi maiatza jasoko dituzte igandean. Urbasara igo, txara bat moztu eta barga gainean jarriko dute, herritik ikusteko

moduan. Langintza hori eguerdian egingen dute. Menditik jaitsi eta, 14:00etan, bigarren maiatza jasoko dute ziordiarrek. Orduan txipudiko parkean izanen da. Eta lanak despedituta, Errekakartea elkartean herri bazkaria izanen da.

Igandean jasoko den azkeneko maiatza **Iturmendikoa** izanen da. Kintoen ardura da enborra herrira eramatea eta, behin maiatza pasata, egurraren salmentatik ateratakoa ere haiendako da. Pagoa dagoeneko moztua dute. Igandea girotzeko sagardotegi menua duen bazkaria izanen da Aitzkozar elkartean. Iturmendiarrak plazan elkartu eta 18:00etan hasiko dira lanean. Haiek izanen dira igandean pago enbor handiena zutituko duten sakandarrak. Bestalde, jende ugari gerturatzen dela baliatuta, Iturmendiko Gazte Asanbladak 17:30ean barra zabalduko du plazan.

Altsasuko ezkila sinfonia asteartean hasiko da

Altsasun 134 egunez entzunen dira ezkila errepikak, asteartetik irailaren 14ra arte. Gainera, urteko aurrenekoa, atzenekoa bezala, ohi baino luzeagoa izaten da, 15 edo 20 minutu. Gainontzeko egunetan errepika motzagoa izanen da. Ezkila errepika jotzeko ohitura galdu egin zen eta 1970ko hamarkadaren hasieran berreskuratu zuten.



Ezkilaren mihiari eragiten.

Euskal hiztunen eskubideen aldeko manifestua

Hainbat esparrutan eskubideen berdintasunaren alde lan egiten duten zortzi eragilek adierazpen bateratua aurkeztu dute: *Eskubideak denontzat*. Manifestuarekin bat egin duten lehen eragileak direla zehaztu dute, eta atxikimendu gehiago jasotzeko kanpaina martxan dagoela. Nafarroako euskal hiztunek pairatzen duten egiturazko bereizkeria salatuta dute, eta Euskalgintzaren Kontseiluak maiatzaren 7rako Iruñean deitu duen *Herritarrak ez gutxietsi, eskubideak guztiontzat* leloarekin manifestazioarekin bat egitera deitu dituzte herritarrak eta gizarte eragileak. "Politika inklusiboak behar dira, herritar guztien eskubideen bermea ardatz izango duten politika feministak, inklusiboak, ekologistak, solidarioak, aurrerakoiak... bai eta hizkuntza-politikan ere". Manifestuarekin bat egin nahi duten elkarte eta gizarte eragileek nafarroa@kontseilua.eus helbidera idatzi behar dute.

Osasunbideari mediku euskalduna eskatu diote

Erabiltzaileen hizkuntza eskubideak errespetatzeko helburuz, Etxarri Aranazko osasun etxean lanean ari diren bi familia medikuak euskaldunak izan daitezela bermatzeko eskatu diote Osasunbideari Etxarri Aranazko Udalak eta UEMAK

ETXARRI ARANATZ

Silvia Marañon Chasco Etxarri Aranazko alkateak eta Iraitz Lazkano Garitonaindia Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko lehendakariak Osasunbideari gutuna bidali zioten hilaren hasieran. Idatzi horren bidez Nafarroako osasun zerbitzuko arduradunei Etxarri Aranatz "osasun arreta euskaraz jaso ahal izateko neurriak hartu eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak errespetatu daitezen" eskatu zuten. Izan ere, herriko osasun etxean aritzen diren bi familia medikuak euskaldunak ziren, baina haietako bat joan ondoren, ordea, Osasunbideak



Etxarri Aranazko osasun etxea. ARTXIBOA

euskaraz ez dakien mediku bat ekarri du.

Bai Marañonek baita Lazkanok gogorarazi dutenez, "joan den urteko otsailean gorako errekurto bat aurkeztu zuen Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, osasun zerbitzuko lanpostu horietarako lan deialdiaren harira. Izan ere, bi mediku lanpostu daude Etxarri Aranazko osasun etxean, baina horietako batek ere ez du hizkuntza derrigortasunik, nahiz eta Etxarri Aranatz eremu euskalduneko udalerrria izan". Etxarri aranazko alkateak eta mankomunitateko presidentek gogoratu dute Nafarroako 18/1986 Foru Legeak aitortzen duela Administrazio Publikoekiko harremanetan, euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eta beraiek hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko eskubidea. "Osasun zerbitzuari zuzenean eragiten dio lege betebeharrak", gaitzitu dute biek. Gutunaren bikote sinatzaileak gaineratu duenez, "badakigu mediku berriak legalki eskubidea duela postu horretan aritzeko eta arazoa ez dela berea".

Centro Integrado Politécnico
FP SAKANA LH
Ikastetxe Integratu Politeknikoa

Proiektuetan Oinarritutako
Ikaskuntza eta Zerbitzu-Ikaskuntza
Metodologian lan egiten dugu.

Goi Maila (Izena emateko epea apirilaren 29tik maiatzaren 10era):

- Mekatronika industrial (gaztelerez)
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazio DUALA (gaztelerez)

Erdi Maila (Izena emateko epea apirilaren 29tik maiatzaren 10era):

- Mantenu Elektromekanikoa (gaztelerez)
- Mantenu Elektromekaniko DUALA (euskaraz)
- Soldadura eta Galdaragintza (gaztelerez)
- Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Laguntzea (euskaraz)
- Sistema Mikroinformatikoak eta Sareak DUALA (euskaraz)

Oinarritzko Maila (Izena emateko epea maiatzaren 26tik ekainaren 3ra):

- Merkatal Zerbitzuak

Araubide Bereziko Kirol Heziketa:

- Mendi Ertaina eta Eskalada

Lanbide Heziketa Berezia:

- Merkataritzako Zerbitzu Orokorretako laguntzailea

ATE IREKIAK:
Maiatzak 5,
10:00etatik 19:00etara eta
maiatzak 7,
10:00etatik 13:00etara





Maiatzaren leheneko bilkurek jendetza bilduko dutela aurreikusten da. ARTXIBOA

Langileen aldeko aldarrikapenak

Sakanan ordezkariak duten sindikatuak bere afiliatuak eta zaleak manifestazioetan parte hartzera deitu dituzte igandean, Langileen Egunean. Nafarroan deialdi zentralizatuak egin dituzte sindikatu gehienek, LAB da salbuespena

SAKANA
Langileen Nazioarteko Eguna edo Maiatzaren Lehena langileen mugimenduaren nazioarteko jaieguna da 1889tik. Hiru urte lehenagoko maiatzaren 1ean Chicagon sindikalista anarkista batzuk greba hasi zuten zortzi orduko lanaldia eskatzeko. Hiru egunetara Haymarketeko matxinada piztu eta greba bukatzeko zortzi langile epaitu eta bost heriotza-zigorra jaso zuten. Langileen eskubideen aldarrikapenez beteko dira kaleak igandean.

LAB
LABek "banaketa hirukoitza" eskatuko du: "lan guztiak aitortu, banatu eta duindu behar dira; banatu eta duindu lanaldia murriztu. Aberastasuna birbanatzeko politiken alde egiten dugu: soldatak hobetuz, zerbitzu publikoak hobetuz eta erreforma

fiskala garatuz". Sindikatu abertzaleak gaztigatu duenez, "egoera jasanezina da sozialki eta ekologikoki. Kapitalismoak planeta ustiatzen du eta pertsonak esplotatzen ditu. Langile klasea desjabetzen ari da, zaintza lanak ez ditu aintzat hartzen, lan harremanak prekarizatzen ari da eta zerbitzu publikoak desegiten".

Sindikatuaren arabera, "bizitzaren garestitzea ez dugu denok berdin nozitzen". Krisiari aurre egiteko "egiturazko neurriak" eskatu ditu LAB, "ez eznahikoak diren partxeak, Estatuak Gobernuak eta Gobernu autonomi-

**ALTSASUN BI
MANIFESTAZIO
IZANEN DIRA: LABENA
12:30EAN ETA
KSRENA 13:00ETAN**

koak egiten ari diren moduan". Sindikatu abertzaleko kideek gaineratu dutenez, "laguntza horietako askok gastu publikoa handituko dute eta politika birbanatzaile egoki bat izan ezean ez da posible izango zerbitzu publikoak behar bezala garatzea, ezta babes sozialerako politika duin bat ere". Bestetik, "oligopolio energetikoak duen xantaia-rako botereari eta gaitasunari mugak jartzea" exijitu du LABek, "energiaren prezioa mugatzea eta energiaren publikazioa defendatu" dute, "haren gaineko kontrol politikoa eta sozial handiagoa" izateko.

Kapitalismoaz aparteko "beste ekonomia gizarte eredu baterako bidea egiten hasi behar dugu", aldarrikatu dute LABetik. "Trantsizio ekologikista eta feministari heldu behar diogu" adierazi dute sindikatu abertzaleko kideek,

eta langile klasea eta herri-sektoreak zaintzeko "pertsonen beharrak eta bizitza erdigunean jartzea" aldarrikatu zuten. Kapitalismoari alternatiba Euskal Herriatik gauzatu beharra aldarrikatu du LABek, eta, horretarako, "burujabetza eskuratzea behar dugu".

ELA
ELAko kideendako "gizartearen begirada berdinzaleagoa eta solidarioagoa aldarrikatzea da. Era berean, beste mundu bat eraikitzeke premiazko konpromiso kolektiboa da, beti ere kapitalismoaren kontra: planetaren mugak kontuan hartzen ez ditu, gero eta desberdintasun gehiago sortzen ditu eta energiaren krisiarekin eta inflazioaren hazkundearekin kolpatzen gaitu". ELAko ordezkariak nabarmendu dutenez, haiek ez dute gobernuekin eta patronalekin itunik sinatuko langileak pobregoa izan daitezten. "Bizi dugun une honetan milaka pertsona egoera prekarioan daude, soldaten defentsa (KPIaren igoera) eta emakumeek pairatzen duten soldata-arrakalarekin bukatzea dira ELAren borroka nagusietako batzuk". Soldata baxuak, lanpostuetan behar besteko segurtasunik ez, behin behineko kontratuak. Prekarietate horrek emakumezko aurpegia duela gaineratu dute, gaineratuz: "errealitateak erakutsi digu enplegu prekarioekin bukatzeko borroka sindikala dela biderik eraginkorrena". Horregatik, "botere sindikala sortzeko antolatzea da edozein militante sindikalen zeregin nagusia eta ekarpenik onena". Bide batez, sindikatuak etxebizitzaren inguruan dagoen espekulazioa salatuz, alokairu sozialeko parke publikoak hutsala dela nabarmendu eta "biztanleriaren parte handiarendako etxe bat eskuratzea gero eta zailagoa" dela azpimarratu du.

ELAren ustez Nafarroako Gobernua "neoliberalismoaren abangoardian" dago, estatuko erkidegoen artean joan den urtean superabit handiena izan zuelako. "Hau da, Nafarroako Gobernuak

**IRUÑEAN: ELA 11:30,
UGT ETA CCOO
12:00ETAN ETA
STEILAS ETA BESTE
12:00ETAN**

gizarte beharrak asetzeko zituen baliabide guztiak ez erabiltzea erabaki du. Hori guztiz ulertezina da Osasunbidearen kolapso egoera ikusita, adibidez, edo pandemiaren ondorioz 2021ean nafarren %16 bazterketa arrisku egoeran dagoenean". Sindikatutik gaineratu dutenez, "legealdi osoan Nafarroako Gobernuak ez du patronalaren interesen aurkako neurririk hartu".

UGT eta CCOO

Bi sindikatuak uste dute egoera "kezkarriaren" aurrean, "atzerazina" dela Espainiako eta Nafarroako gobernuek "prezioen igoera handiak gehien kaltetutako pertsonak babesteko eta enplegua babesteko neurri sendoak bultzatzen jarraitzea". Bi sindikatuak uste dute kideen iritziz, "funtsezkoa" da botere publikoek prezioei eusteko politika "handinahia" izatea, "sortu den aparteko arazoaren mailakoa". UGTko eta CCOOko kideek esan dutenez, "langileria pobretzen ari den inflazio neurrigabea geldiarazteko, energia enpresek irabaziak izaten jarraitzen duten bitartean".

UGT eta CCOOko arduradunek "berandu baino lehen" Enplegurako eta Negoziazio Kolektiborako Akordio berri bat sinatzearen alde egin dute, hitzarmen kolektiboak berritzea eta eguneratzea bultzatzeko eta soldatak igotzea sustatzeko, "bizitzaren kostuaren igoerarekin bat etorritz". Azaldu dutenez, "soldatek gora egin behar dute langileak baldintza hobetan bizi daitezten, enpresen aberastasuna birbanatzeko eta herrialdearen hazkunde ekonomikoa hobetuz laguntzeko", eta "erantzukizuna" eskatu diote patronalari: "ez dugu onartuko soilik langileek onartzea prezioen igoeraren ondorioak. Langileek erosteko ahalmena irabazi eta bizi maila duina izan behar dute. Eta horrela eskatuko dugu datorren igandean kalean, soldata handiagoak, prezioei eustea eta berdintasun handiagoa behar ditugulako", azpimarratu dute.

CNT, CGT, ESK, STEILAS eta Solidari

Bost sindikatuak iritziz, "azken bi urte hauetan, amestu genuen une batez beste mundu bat posible zela. Une batez, eztabaidaezina iruditu zitzaigun funtsezkoak ginela. Baina pozak gutxi irauten du pobreak etxean, eta sistema

kriminal horrek berehala markatu ditu egonguneak". Bost sindikatuek adierazi dutenez, "hamarkadak daramatzagu salatzen langileen prekarizazio laborala eta soziala. Lan harremanen ereduetan islatzen da prekarietatea; ertz asko ditu baina pobrezia feminizazioa errealitatea da". Nafarroako lan istripu kopuruaren gorakadak gaztigatu eta nabarmendu dutenez, "langileok eskubidea dugu lanean osasuna izateko baina, batez ere, lanera joaten garen bakoitzean bizitza jokoan ez jartzeko". Eta etxeko langileendako eskubideak aldarrikatu dituzte.

Boskotearendako "sistemaren arrakalak agerian geratu direnean eta osasuna, hezkuntza, gizarte zerbitzuak edo zaintza lanen moduko zerbitzu publikoen garrantzia nabarmena denean, gobernuak, bai hemengoak bai Madrilegoak, herritarrek eta diru publikoa esku pribatuaren jartzearen alde egiten dute". Horregatik azpimarratu dute: "governatzen gaituztenek erantzukizuna dute balantza behingoz orekatzeko eta gehiengo sozialen txirotzea geldiarazteko". Haien iritziz, "eraldaketa produktibo bat behar dugu, non pertsonen beharrak eta ongizatea erdigunean izango diren. Trantsizio bat, zeinetan guk izango dugun ekonomiaren kontrol demokratikoa, kapitalaren interesetara makurtu gabe, eta saldu nahi diguten kapitalismo horretatik urrun".

Kontseilu Sozialista

KS-koek azaldu dutenez: "sozialismoaren konkistak gogoratu behar ditugu: kalitatezko bizi baldintzen alde inoiz izan diren aurrerapauso handienak lortu baitira". KSkoen iritziz, "kapitalismoa gainbeheran dago eta langile klasako kideak ari gara krisialdi horren ondorioak pairatzen". Nabarmendu dutenez, "alderdi parlamentarioa oligarkien menpe daude. Dirurik soberan ez dagoen garaioan erakundeak miseria kudeatzera mugatzen dira". Hala ere, "ongizate orokorra bermatzeko inoiz baino bitarteko gehiago existitzen dira. Teknologiaren eta ekoizpen bitartekoen ugaltzeak mundu guztiarendako kalitatezko bizitza bermatzeko aukera sortzen du". Esan dutenez, "ekarpena egin nahi dugu momentuko borroka eta sozialismoaren eraikuntza uzartzeko".

Lanbide Heziketan bi berritasun izanen dira

Industria Mekatronika euskaraz ikasteko aukera izanen da eta behar bereziak dituzten ikasleendako Merkataritzako Zerbitzu Orokorretako laguntzailea ikasketa izanen da. Izen ematea ostiralean zabalduko da, maiatzaren 10era arte

SAKANA

Sakana Lanbide Heziketa (LH) institutuaren heldu den urteko ikasketa eskaintzan bi berritasun izanen dira heldu den ikasturtean. Izan ere, orain arte gaztelaniaz ikas zitekeen goi mailako Industria Mekatronika ikasketak heldu den ikasturtetik aurrera euskaraz ikasteko aukera izanen da, euskarazko adarra sortuko baita. Horrekin batera, LH Bereziko estreinako ikasketa hartuko du institutuak: Merkataritzako Zerbitzu Orokorretako laguntzailea ikasketak.

LH Bereziaren bidez hezkuntza premia bereziak (aldi baterakoa edo iraunkorra) dituzten gazteen prestakuntza eta kualifikazio beharrei erantzuten zaie. Behar bereziak dituzten ikasleek ikasketak gaingitzean ziurtagiri bana jasoko dute. Han gaingitutako lanbide profesionalen moduluak azalduko dira. Ziurtagiriak LH eta Kualifikazioen Katalogo Nazionalaren lan kompetentzien akreditazio balioa du. Behar bereziak dituzten pertsonak lan merkatuan txertatzeko balioko du ikasketa berriak. Institutuak dagoeneko Oinarrizko LHko Merkataritza zerbitzuak ikasketak eskaintzen zituen eta familia bereko ikasketa da aipatutako azken eskaintza berria. Eskain-



Sakana Lanbide Heziketa institutuaren sarrera. ARTXIBOA

tza berriaren kudeaketan Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroarekin batera ari da Hezkuntza Departamentua eta ikastetxea.

Izen-ematea

Hezkuntza Departamentuak ikasturte honetan Erdi Mailako eta Goi Mailako inskripzioak bereizi ditu, eta horrek aukeratzeko aukerak handitzen ditu. Izena emateko egunak (telematikoki edo presentzialki) gaurtik maiatzaren 10era izanen dira, eta onarpen osoko prozesua garilean despidituko; egon daitez-

keen plaza hutsak, berriz, irailean esleituko dira. Behin betiko lehen zerrendaren matrikula garilaren 4tik 11ra bitartean egingo da. Oinarrizko LHrako, maiatzaren 26tik garagartzaroaren 3ra bitartean eman ahal izango da izena, eta matrikula garilean ofizializatuko da. Espezializazio ikastaroen kasuan, eskaintza erdi presentziala, eskaintza modularra eta online prestakuntza garagartzaroan egingo dira.

Departamentutik ikasleei eta familiei eskatu diete orientazio profesionalengana jo dezate-la, beraien nahien, trebetasunen

eta etorkizun profesionalaren arteko orekan aukeraketa egokiena egiteko. Izena emateko kanpaina publikoarekin batera, departamentuak gutun pertsonalizatu bat bidali die DBH eta Batxilergoa bukatzen duten ikasleentzako familiei, LHko ikasketa eskaintza zabalari buruzko informazio guztiarekin, QR kode bat du gutunak, automatikoki eta modu iraunkorrean eguneratuko dena.

Eskaintza

Goi mailako zikloak

- Industria Mekatronika (euskaraz edo gaztelaniaz).
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa (ikasketa duala).

Erdi mailako zikloak

- Mantentze-lan elektromekanikoa.
- Soldadura eta galdaragintza.
- Araubide bereziko kirol ikasketak bai mendi ertaina bai eskalada.
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonen laguntza (euskaraz).
- Mikroinformatika sistemak eta sareak (ikasketa duala, euskaraz).

Oinarrizko Lanbide Heziketa

- Merkataritza zerbitzuak.

Lanbide Heziketa berezia

- Merkataritzako Zerbitzu Orokorretako laguntzailea.

Ziurtagiriak

Lanean ari diren langileak titulazioa lortzeko profesio ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

BiL TOKi
TABERNA • JATETXEA

Eguneko
menua 11 €

Menu
berezia 15 €

Telefono berria:
948 562 348 - Altsasu

kaxeta
LIBURUDENDA

Zure bertako liburu denda

foto.kopia@kaxeta.net
628 542 519 | 948 460 477

PORTUKO
ofidenaia

Altsasu: 948 563 822 (denda) | 948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988

HARA ZER DIEN

I(t)sasi eta De(he)sa, esanahi bereko euskal toponimoak biak ala biak?

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Asko dira Euskal Herrian barna toponimo soil eta osagai bezala ere *itsasi/isasi* izen konposatua dutenak. Eta aipatutakoekin batera, hauek agertzen ez diren eremuetan, beste biak, *desa-/dehesa* ere bai. Eta biak ala biak funtsean gauza bera adierazten dutelakoan nago, ganaduak bazkatzeko tokiei egiten baitiete erreferentzia, toponimia ofizialean lehenari buruz bestelakorik badiote ere: "El topónimo nos habla de la presencia de retama (*isats, itsats*)". (NTM X, 67 or.)

Ez dut nik uste *isasi* eta *isasti* nahastu behar ditugunik eta, zalantzarik gabe, *isasi/itsasi*-ak ditugu, hau da, -di/-ti atzizkirik gabeak artikuluan aipatuko ditudan guztiak:

idi + (h)esi + (-a) → itesi(a) (itsesi/itsasi), funtsean.

Eta, hiperzuzenketa medio seguruenik, erdiko bokala irekirik, *itsasi/isasi/itxasi* ageri da dokumentazioan eremu askotan, egia bada ere, normalean jatorrikoa izan daitekeen erdiko bokalarekin ahoskatzen dela toki gehienetan: Arbizon, Lakuntzan, Arruazun, Uhartan eta Irañetan esate baterako. Etxarri Aranatzen *itxere* (*ytcharea* eta *ytsarea*

dokumentaturik 1893an) toponimoa dago eta, kasu honetan, bigarren silabako bokal irekia beharko lukeena, asimilaturik ageri da: *idi + sare → itsare → itsere* (asimilazioa) → *itxere* (palatalizazioa).

Bestalde, Urbasa mendian badira Arbizuko biortesiya eta Etxarriko biortesiye izeneko toponimoak: *behor + (h)esi + -a → biortesiya/e*. Eta Arbizuko eremuan, *Beiesiya* (*behi + hesi + -a*) ere bai.

Gogoratu besterik ez da behar nola jokatzan duen toponimo honen lehen osagaiak konposizioan (*idi > it-*), oraingoan ere, zuzena dela bilakabidea ondorioztatzeko: *idi + zain → itzain; idi + aurreko → itaurreko (itturriko)* Etxarri, *iturriko* Altsasun, *itaurreko* Urdiainen); *idi + ola → itola (ittola)* Dorraan 1898an dokumentatua; *idi + sare → itxare (itxere)* Etxarri Aranatzen 1893an dokumentatua).

Toponimo hauen tokian tokiko dokumentazioa aipatzen hasi baino lehen, lehenaren kasuan (*itsasi/isasi*) behintzat, honen osagaiak *idi* eta *hesi* direla egiaztatzea datorren aipamena egingen dut. Sakana erdialdeko euskara (2001, 157-158 or.) doktorego tesian jaso nuen 1617ko dokumentuan ageri zaigu *ichasi* eta

ascolichasi terminoen jatorria: "...*desa boyaral y endrecera que le dicen Ucuar ... vedado desde el dia de Santa Cruz de maio hasta el dia de las animas ... (la) endrecera de Ucuar tiene por otro nombre en vascuence ascolichasi... porque es desa boyaral y porque ascolichasi quiere decir cossa vedada en todo que aun no dexan cortar arboles ni hacer mad(e)r(a) ... d(ic)ho term(in)o y endrecera de Ucuar a tenido y tiene por su nombre en bascuence ascolichasia y este vocablo ichasia es visto claramente de por ser bedado boyaral...*"

Testuan agertzen den toponimoa, 'Ucuar', Etxarriko eta Arbizuko Utzubar toponimoa litzateke, eta ikus daitekeen moduan *itxasi* idi hitzarekin lotuta egon daiteke, 'boyerar' aipatzen baitu argi eta garbi. Bestalde, *ascolichasi*-k, ez bakarrik aberentzako debekua edo hesia, baizik eta aizkorarako ere markatzen zela hesi hori adieraz lezake: *askolitsesi < aizkora + itsesi < aizkora + idi + (h)esi*.

Arin Dorronsorok Ataungo toponimia aztertu zuenean (*Toponimia del pueblo de Ataun*) Aizcolisasia toponimoari dagokionez honela esan zuen: "384. *Aizcolisasia 1404 (= poblado o abundancia de peñas peladas)*". Ez dut uste apez ataundarrak asmatu zuenik.

Rafael Carasatorre historialari etxarriarrak, Barranca Burunda liburuan (1993, 212-213 or.) horrela dakar: "*Ichasiac: en escritura de 14 de junio de 1659 señalan parajes para los animales de labranza de los pueblos de la Burunda; de modo que los lugares de Iturmendi y Urdiain tengan sus deesas boierales que entre sí llaman ychasiac*". (N.de A., F. Galarza, Leg. 36 n. 52)."

Josirik daukagu Sakana horrelako toponimoz (badira aldameneko Arabako Lautadan ere bai), grafia ezberdinekin bada ere: *Itxasperri* (*idi + (h)esi + berri*), *Itisasi* (Ekai: 1580, 'monte de robredo', 'pueden pacer las yerbas y beber las aguas'; Issassi 1605; Isesia 1772; Ichasia 1830). Hiriberrin ere, 1602 urteko kontuetan, ardoa, gazta eta aharikiaren gastuez



gain, *itsasiak* egiteko gastuak ere jaso zituzten: "*item quando pusieron los hichasis 3 (erreal)*".

Bestalde, artikulua izenburuan aipatu bigarren toponimoa urriagoa bada ere, ezaguna da Sakanan, osorik edo sinkopaturik. Ganaduak bazkatzeko tokiei erreferentzia egiten dien beste toponimo haxe (gaztelaniak generiko moduan erabiltzen duena esanahi berberarekin) dehesa dugu euskal toponimian eta baita Espainiakoan ere. Joan Corominasek (2000, 203 or.) horrela definitu zuen: "*DEHESA 'tierra destinada a pastos', 924. Del lat. tardío DEFENSA 'defensa', en la Edad Media 'prohibición', porque la dehesa está comúnmente acotada*".

Nik, ordea, aipatu mikrotoponimoa ez latinetik baizik eta euskaratik datorrela pentsatzen dut, *i(t)sasia* bezala, osagai berberak dituela iruditzen baitzait:

idi + hesi + -a → idihesia → dihesia (aferesia) → *dihesa → dehesa*

Honetatik, normala erabat ere, *dehesa → desa* (sinkopa edo kontrakzioa) Aralarren agertzen den moduan zenbait toponimoren aurrizki edo osagai bezala, aurrerago ikusiko dugun moduan.

Dehesa bat bera ere ez Burundan eta Sakana erdialdean (bai, ordea, aldameneko Arabako Lautadan), baina honen bilakabidearen ondorio izan daitekeen *desa-*, aurrizki edo beste toponimo batzuen osagai moduan, bai ageri da Aralar mendiaren eremuan.

NTM XII liburuan ageri da *Desamalkor* (*dehesa + malkor*) eta ondorengo diote iruzkinean: "*Una serie de topónimos de Aralar (y tal vez también Dezdaldapa de Lakuntza) tienen el primer elemento Desa-, que debe ser un antiguo nombre de lugar que ha desaparecido*".

Nik ez dut uste herri edo leku (nombre de lugar) izena denik aipatu *desa-*, "dehesa" izenaren bilakabidea baizik.

Desamendi (dehesa + mendi) eta honekin batera, *Desamendiko bidea*, *Desamendiko uspela* (itzela), *Desaoo*, *Desaoko aterbea* eta *Desamenditxiki*.

Desaoo modu ezberdinetan ageri da dokumentaturik 1991n NTM XII liburuan: *Deságue*, *Desáo* eta *Desáue*. Nire ustean, ondorengoak izanen lirarteke bere osagaiak: *de(he)sa + aho + -a → *desagoa → desague/ desaue/desao*.

Eta komeni da gogoratzea Sakanan ohikoa dela /h/ren testigantza erakusten duen /g/ kontsonante herskari ahostunaren agerpena halako egoeretan: *ago* (ah), *guartu* (ohartu), *guatze* (ohatze)... Bestalde, /o/ bokalaz amaituriko lexemei mugatzailea eransterakoan ere, ohikoa dugu Sakanako zenbait hizkeretan aipatu bokal elkarketa diptongatzea: *beso + -a → besue*, *zulo + -a → zulue*, *aho + -a → ague*...

Aipatu berri dugun *Desao* toponimoa, bazkalekuaren hasiera izanen genuke orduan eta Aralarreko mapan begiratuz gero, San Migelgo bidetik, *Pagomari* atzean utzita ageri da eta hortik aurrera Gipuzkoako norabidean gainerako toponimo *desa-* dunak.

Lakuntzako *Dezdaldapa* ere bai, herriatik iparraldera, Arakil ibaiaren bestaldean, baso betean, idi hesia egiteko eremu egokia erabat, herri eremuaren hego-ekialdean dagoen *Itsesalde* bezala.

Eta, azkenik, lehenago aipatu dugun Ekai herriko *Faceria de Arrigorte* dokumentuan, 1772 urtean Ekai eta Zuhatzu herrien arteko mugarritzeetan ondorengoak aipatzen dira: *Deesa robredal de Arrigorte* eta *Deesa robredal de Sarcota*.

DUELA 25 URTE...



Bernoako galtzada berreskuratuta

Hala ikus daiteke Iturmendiko Zirrinkaleko plazan jarrita dagoen informazio paneleko mapan. Iturmendiaren asmo zaharra zen xenda hura garbitu eta txukuntzea, batez ere, herriko alminte Santi Agirreren. Informazio panelekin batera, galtzadaren Iturmendiko zatia seinalezta-tu zuten. Eta zenbait tokitan lurra eta belarra kendu eta galtzadako harria azaleratu zuten.

Alokairuko etxebizitzaren eskariaren argazkia

Altsasun alokairuzko etxebizitzaren egungo eskaera zein den ezagutzeko galdetegia zabaldu zuen udalak eta erantzun gehienek bi gelako etxebizitza, etxe iraunkorra izateko eta bakarrik edo familiarekin bizitzeko izanen litzatekeela esan zuten

ALTSASU

Alokairuzko etxebizitza premien inguruko informazioa jasotzeko Altsasuko Udalak eta Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak inkesta zabaldu zuten. 80 pertsonak erantzun zuten (48 emakumezko, 30 gizonezko eta zehaztu nahi izan ez zuten beste 2). Galdetegia erantzun zutenen erdiek 26 eta 35 urte artean zituzten, 16k 36 eta 45 urte artean eta 11k 18 eta 25 urte artean.

Erantzun zutenetatik 37k bi logelako etxebizitza nahi zuten eta 29k, berriz, hiru gela edo gehiagoko eraikin batean bizi nahiko lukete. Gela bateko etxebizitzaren alde 9k egin zuten eta isolatutako eraikin bat nahi zutenak 4 izan ziren. Bestelako aukera baten bila bakarra zegoen. Alokairuaren iraupenaz galdetuta, 51k etxebizitza iraunkorra nahi zuten, 22k ekonomia autonomia handiagoa lortu arte han bizitzeko, bakarrik ikasturterako nahi luke etxebizitza eta 6k bestelako aukeren alde egin zuten.

Ekipamendua eta errenta

Nola biziko liratekeen galdetuta, 29k esan zuten bakarrik bizitzeko litzatekeela, 28k familiarekin bizitzeko eta 22k beste pertsona batekin partekatuzko litzatekeela.



Erkuden kalearen ikuspegia. ARTXIBOA

la. Etxebizitza pertsona batekin baino gehiagorekin partekatuzko erantzun bakarra izan zen. Alokairuzko etxebizitzak zein ekipamendu izatea nahi luketen galdetuta, 58k etxea guztiz jantzita egotea nahiko lukete, 20k sukaldaria izatea eta bik igogailua izatea lehenetsi zuten. 80 erantzunetatik 18 izan ziren etxebizitzaren arkitektura oztoporik nahi ez luketela esan zutenak, gainontzeko 62ei ez zitzaizkien inportatutako trabak izatea.

Duten errentaz galdetuta, 33k esan zuten urtean 12.000 eta 20.000

euro artean kobratzen dituztela. 20k 9.000-12.000 artean eta 14k 20.000-40.000 euro artean jasotzen zituztela urtean. 11ren kasuan 9.000 euro baino gutxiagoko sarriak dituzte urtean eta bik bat bera ere ez. 80tik 18k besterik ez zekiten etxebizitza alokatuzko eskuratzeko laguntzak zeudela. Hileko ordaindu lezaketan alokairuaz galdetuta 36k 200 eta 300 euro artean ordaindu zitzaketela esan zuten, 33k 300 eta 400 euro artean, 8k 400 eta 500 euro artean eta 3k 500 eurotik gora.

Altsasuko Udalak bi dirulaguntza deialdi egin ditu

Bizi baldintzak hobetzen lan egiten duten entitateendako eta garapenerako lankidetzarako dira

ALTSASU

Altsasuko Udalak egin duen lehen dirulaguntza deialdiaren xedea da behartsuak diren biztanleria sektoreen bizi baldintzak hobetzea, integrazioa, aukera berdintasuna, indarkeriarik eza, giza

eskubideen urraketa ezagutu eta konpontzeko azterlanak egitea, gizarte arriskuko egoerei aurrea hartzea edo zaurgarritasun, babesgabezia, mendekotasun edo gizarte bazterkeriako egoerak tratatzea ahalbidetuko

duten ekimenak sustatzea eta dinamizatzea. Udalak 7.200 euro bideratu ditu. Irabazi asmorik gabeko entitate nafarrek aurkez ditzakete eskaerak udalaren deialdi horretara. Bigarren dirulaguntzen helburua da nazioarteko lankidetzaren programak edo garapenerako laguntzak bultzatzea, herritarren sentibilizazioa eta altsasuarren eta elkarten parte hartzea sustatzen duten jarduerak eginez. 6.000 euro daude. Maiatzaren 9rako bete behar dira eskabideak.

Abeltzaintzarekin lotutako bi lan eginen dira Altsasun

Altsasuko Udalak abeltzaintza azpiegiturak hobetzeko 92.702,89 euro bideratu ditu, aurrekontu aldaketa onartu ondoren. Lanak egin ahal izateko udalak Nafarroako Gobernuari dirulaguntza eskatu dio dagoeneko. Udalak 2020an Azunzarte eta Zezenaga dermioetan dagoen pinudiaren itxituraren zati bat egin zuten. Aurten itxitura egiteko lanak despidetuko dituzte.

Horrekin batera, udalak Basamuturreko bidea asfaltatu du. Javier Ollo Martinez alkateak nabarmendu duenez, "abeltzaintza, baso eta jendearen erabilera handia du bide horrek, eta horregatik eginen da lana". Udalak dagoeneko lanak emateko deialdi egin du eta interesa duten enpresek apirilaren 19ra arte dute beraien eskaintzak aurkezteko. 525 metro inguruko luzera duen bidea asfaltatzeko 64.481,11 euro (BEZ barne) bideratu ditu udalak. Kalitate eta prezio erlazio onena duen eskaintzari ematen dio lana udalak.

Urarekin lotutako inbertsioetarako bi milioi

Nafarroako Gobernuaren Toki Inbertsioen Plan berriak uraren goi hornidurarako 51 jardueraren izenak, 2022 eta 2025 urteen artean egin beharko direnak. Egindako lanen aurrekontuaren %80 ordainduko die foru administrazioak toki erakundeei. Plan berriaren ibarrek bi lan aurrekusi dira. Batetik, Urdalur uharkako ur sarea Irurtzuneraino luzatzea. Gaur egun Ziordian dagoen urtegi ura Etxarreneraino iristen da eta Irurtzuneraino arteko azken fasea litzateke. Sakanako Mankomunitateak eginen du lan hori eta 1,9 milioi euroko aurrekontua du.

Bestalde, Irañetako Udalak ere foru administrazioaren dirulaguntza jasoko du. Irañetako 2020 urtetik du ur biltegi berria barga aldean. Hala ere, eraikin berriaren iragazpen sistema instalatzea falta da, ura herrikoetxeetara are garbiago iristeko. Lan horretarako Nafarroako Gobernuak 72.000 euro bideratu ditu.



Olaztiarrek Izan Bidea dinamikarekin bat egin zuten. ARTXIBOA

Maiatzean 20.000 km egiteko erronka jarri du Sarek

Bat egin nahi dutenek Sareko kideekin harremanetan jarri, edo sakanasare@gmail.com e-postara idatzi

SAKANA

Sakanako Sarek *Baietz 20.000 km maiatzean* ekimena antolatu du eta sakandarrak bertan parte hartzea gonbidatu ditu. Koadri-la, lagun, kirol talde eta norbanakoei zuzendutako ekimen horren bidez, Sarek sakandarren pausoak batu nahi ditu preso, iheslari eta deportatuen etxeratzearen alde. Horregatik, sakandarrak ekimenean izena eman eta bizikletan, igerian, korrika, oinez, patinetan, arraunean... km-ak egiteko eskaintza egin du Sarek. Izena eman dutenei kilometroak egiten ari diren bitartean argazkia edo bideoa egin eta hari bidaltzea eskatu du. Bestela, ibarreko herrietan ere hainbat ekimen antolatu dituzte helburu horren aldeko km-ak pilatzeko. Izan Bidea dinamikaren baitan kokatzen da ekimena.

Sareko kideek azaldu dutenez, "azken bi urteak garrantzitsuak

izaten ari dira euskal presoek egoerari eta salbuespeneko espere politikari dagokionean. Urte luzeetan ezarritako urrutze politikaren akaberaren atarian gaudela esan genezake". Salbuespeneko legedia "atzean utzi eta legedi arruntera saltoa egiteko unea" dela, gaineratu dute. Hala ere, "aldaketak kontrako jarrerak ere hauspotu ditu, eta badira oraindik ere etxerako bidean oztopo izaten ari diren gertaerak". Sarekoen iritziz, "etxeratze bidea gauzatzeko orain arte moduan oztopo bakoitza salatu eta kalera atera behar dugu".

Ekimen horren barruan, Sarek etxarriarrei proposatu die igandeko maiatzerako igoera eta jaitsiera km-ak dinamikaren aldeko pauso bihurtzeko. Izena emateko 610 610 575 zenbakira whatsapp mezua bidali, edo igandean ur biltegian izanen den postuan eman dezakete izena.

Errigoraren "inoizko uztarik emankorrena"

Irurtzongo Iratxo elkarteak, Irañetan, Uharteko Arakilgo udaletxean, Arbizuko eskolan eta Altsasuko Itsasi euskaltegian astelehenetik aurrera jaso ditzakete elikagaiak, norberak eskatu duen tokian. Etxarrin, maiatzaren 6an, 18:00etan, estalopean

SAKANA

Nafarroa hegoaldeko uzta, eskutik eskura. Izen hori du Errigoraren udaberriko kanpainak, boluntarioen lanaren bidez ekoizleek olio, kontserbak, pasta edo arroza kontsumitzaileen eskutan jartzen duena. Errigorako kideek jakinarazi dutenez, aurtengo kanpaina "inoizko uztarik emankorrena" izan da. Batetik, 10.000 etxeetara iritsi dira ekoizleek produktuak, joan den urtean baino %20 gehiagora. 143.000 litro olio banatu dituzte (%35 gehiago) eta 271.000 konserba ontzi eta 41.000 pakete (%15 gehiago). Sakanari dagokionez, 713 olio bidai, 451 kontserba pakete eta 127 pakete arroz edo pasta eskatu dira. Duela bi urterekin alderatuta Errigorari sakandarrak egindako olio eskaera %174,33 hazi da. Kontserben kasuan %110,2 izan da hazkundera tarte berean, eta %31,05 arroza eta pasaren eskaerarena.

Errigora ekimeneko kideek jakinarazi dutenez, aurtengo egin diren kontserba, arroza, pasta eta lekale eskaera guztien %20 ekoizpen ekologikoa izan da. Aurreratutakoak, heldu den urtean ekoizpen ekologikoko eskaintza handiagoa izanen da eta aukeren artean potxa ekologikoak izanen dira. Irailerako



Egindako eskaera jasotzen. ERRIGORA

prest izanen dira piper ekologikorako 36.000 metro karratu gehiago. Bestalde, Nafarroan ekoiztutako 11.000 kilo txitxirio eta dilista banatuko ditu Errigoraren udaberriko kanpaina honen bidez. "Hazialdeko lekale ekoizleek elkarteari eskatu bultzada ederra suposatzen du horrek". Errigorakoek esana dute "elkagaiak ekoizteko erakaldatzeko kontsumitzaileak erakaldatzea izan daiteke bide eraginkorrena".

Bestalde, Errigoraren kate guztiko boluntarioen bitartez ekoizleak eta kontsumitzaileak

harremanetan jartzen dituen proiektuak euskaraz etiketatutako produktuak eskaintzen ditu. Baina ez da horretara mugatzen. Errigoraren aritzen diren 12 ekoizleren lantokitan euskara planak ari dira gauzatu. 2023rako Errigoraren baitan ari diren guztiak izanen dira euskara planetan murgilduta. Horregatik guztiatik kanpainako ardura dunek gaztigatu dutenez, "Errigorarekin bat egin duten milaka herritarren ekarpenak Nafarroako baratzetan eman dituen fruituak".

Mugikortasuna aztergai

Sakanako Garapen Agentzia (SGA) bestelako mugikortasun eredu bat aztertzen ari da. Ditugun premiak eta mugikortasuna hobetzea aztertzeko maiatzaren 18an, 12:00etan, online bilera antolatu du. Parte hartu nahi dutenek proiektuak@sakanagarapen.com e-postara idatzi beharko dute. Kudea Go!-ren berri ere jasoko dute.



ARTXIBOA

BIKAIN GARAJEA

Mekanika
Elektromekanika
Serie 100
pintura prototipoa
Autokarabana eta
furgoneta saila

948 460 037 Arbizu

FLORES

Utzubar industrialdea Arbizu
948 460 499
Nafarroako berezko txistorra.

ESKELA



Maite Beperet Azpilicueta

Betirako gure bihotzetan.
Izugarri maite zaitugu

Etxekoak

ESKELA



Maite Beperet Azpilikueta

"Bihotzean utzitako sekulako hutsunea,
oroitzapenez bete da.
Ez zaitugu inoiz ahaztuko"

Zure Bakaikuko familia

ESKELA



Maite

Besarkada bat Ainhoa eta familiarendako

Ainhoaren lagunak
Altsasu

ESKELA



Maite Beperet Azpilikueta

Zure irrifarra gure oroimenean geldituko da

79ko kintoak
Altsasu

ESKELA



Maite Beperet Azpilikueta

Zure irribarre atsegina eta begirada abegikorra gogoan gorde ditugu

Iñigoren lagunak

ESKELA



'Tia Mari' Barandiaran Agirrebengoa

Maite gaituzu, asko eta maite zaitugu, asko

Altsasun, 2022ko apirilaren 21ean

ESKELA




Mari Barandiaran Aguirrebengoa

Mila esker amona, eman diguzun guztiagatik

Ane, Eneko, Inixio, Jon, Txomin eta Beñat

ESKELA

Ángel Aldasoro Ramírez de Alda

Ondo joan eta ondo ibili, lagun!



Beti-iaten elkarteko bazkideak
Altsasu

ESKELA



Kontxi Mariñelarena Iraizoz

"Gure melodiak entzuten jarrai dezazun zauden tokitik Eskerrik asko Kontxi zure txaloengatik"



HAIZE BERRIAK
BARRIOA MENDI BARRIOA

ESKELA

Eduardo Gonzalo Ventosa

Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin gelditzen da



Aralar Mendi futbol taldeko jokalaria eta lagunak

OROIGARRIA

Jose Mari Mercero Lizarraga
III. urteurrena
(2019ko apirilaren 25ean hil zen)

Alaitasunaren iturritik edan genuen elkarrekin,
oroimenean izango zara zu beti gurekin

Etxekoak
(Unanu)

OROIGARRIA

 **Maria Luisa Zelaia Mendia**
I. urteurrena

Beti nire bihotzean

Jesus

OROIGARRIA


 **Maria Luisa Zelaia Mendia**
I. urteurrena

Beti egongo zara gure bihotzetan

"Urte honetan zehar gurekin egon zareten guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu jasotako babes eta maitasun keinuengatik"

Zure familia

OROIGARRIA

 **Adur Mariñelarena Galartza**
XVII. urteurrena

Maiatzaren 1ean 17 urte beteko dira utzi gintuzunetik.
Hala ere, ezer ez da zure oroitzapena ezabatzeko gai izanen.

Zure familia
Etxarri Aranatz

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

JAIOTZAK

- **Aiora eta Iraia Galbete Argüelles**, martxoaren 18an Olaztin
- **Danel Ayerza Lacunza**, martxoaren 24an Etxarri Aranatz
- **Ane Diaz de Garaio Andonegi**, martxoaren 25ean Bakaikun
- **Lea Hermoso de Mendoza Zubiria**, martxoaren 30ean Lakuntzan
- **Eneko Otxoerrarte Garmendia**, apirilaren 6an Arbizun
- **Mikel Iriarte Ruiz de Erenchun**, apirilaren 15ean Errotzen
- **Ibai Peña Goikoetxea**, apirilaren 20an Altsasun
- **Anas Majmi**, apirilaren 21ean Bakaikun
- **Haizea Retegei Orellana**, apirilaren 22an Altsasun
- **Ukerdi Sales Mendoza**, apirilaren 23an Altsasun

EZKONTZAK

- **Alfonso Argüelles Santesteban eta Zuriñe Etxandia Azkarate**, apirilaren 8an Olaztin

HERIOTZAK

- **Catalina Jaka Iraurgi**, apirilaren 14an Etxarri Aranatz
- **Catalina Uribe Uribe**, apirilaren 14an Altsasun
- **Maria Cruz Mendigutxia Martinez de Ordoñana**, apirilaren 14an Olaztin
- **Maria Jesus Lakuntza Lizarraga**, apirilaren 17an Bakaikun
- **Concepción Peral Cortés**, apirilaren 18an Altsasun
- **Eduardo Gonzalo Ventosa**, apirilaren 20an Uharte Arakilen
- **Domingo Perez Cepeda**, apirilaren 22an Olaztin
- **Primitiva Ganboa Miranda**, apirilaren 23an Lakuntzan
- **Benigna Gonzalez Rodriguez**, apirilaren 24an Altsasun
- **Francisco Goikoetxea Galarza**, apirilaren 25ean Urdiainen
- **Maite Beperet Azpilikueta**, apirilaren 25ean Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA.
AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.


IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AGÜ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
📧 @Grupolrache
📱 Grupolrache
🌐 www.tanatoriosirache.es

1. AUTONOMIKOA GIZON.

2. FASEA. 16. JARDUNALDIKO EMAITZA
Lagun Artea - Universidad de Nav. 3-1

SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO JAITSIERA

1	Peña Azagresa	50
8	Lagun Artea	40

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

11:30 Artajonés - Lagun Artea (Artaxoa)

Lagun Arteak liderra aurkari

Mailari eusteko borroka betean sartu dira lakuntzarrek. Partida zaila dute aurretik.

1. AUTONOMIKOA EMAK.

2. FASEA. 8. JARDUNALDIKO EMAITZA
Altsasu - Cortes 2-1

SAILKAPENA

1. AUTONOMIKOKO EMAK. MANTENTZEA

1	Mulier B	37
9	Altsasu	4

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

17:00 Idoia - Altsasu (Oteiza)

Altsasu, lehen garaipena ospatzen

Lehen garaipenak Idoiari aurre egiteko animoa eman dio Altsasuri.

FUTBOL PREFERENTEA

30. JARDUNALDIKO EMAITZA
Aibarés - Etxarri Aranatz 4-0

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1	Injerto	72
13	Etxarri Aranatz	30

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

17:00 Etxarri - Lagunak (San Donato)

Etxarrik Lagunak taldea hartuko du

Kategoriari eusteko, puntu garrantzitsuak dira San Donaton jokoan daudenak.

FUTBOL ERREGIONALA

IGOERA FASEA. 1. KANPORAKETA
Urrozterra - Altsasu 0-2

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO IGOERA FASEA

1	Aurrera	2
10	Altsasu	2

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

18:00 Altsasu - Urrozterra (Dantzaleku)

Altsasu, lehen kanporaketa gainditzera

Joaneko partida irabazi eta gero, itzulerakoan berbera egin nahi du Altsasuk.

Bigarrena ez da xamurragoa izango

PILOTA Buruz Buruko final laurdenetako lehen jardunaldi gogorak utzi zuena ikusita, pilotariek ligaxkari eutsiko ote dioten da pilotazale askoren kezka. Ezkurdiak Altuna izango du aurkari eta Zabaletak Dario, goi tentsioko beste bi partidatan

Maider Betelu Ganboa SAKANA

Txapelketa nagusia da Buruz Buruko. Berez ikusgarria den txapelketa ikusgarriagoa bilakatu nahi izan du EPEL-ek final laurdenetako ligaxka ezartzearekin. Asteburuan lehen jardunaldia jokatu zen eta partida guztiak gogorak izan ziren. Telebista audientzien datuak, ere, sekulakoak. Ezkurdiak eta Zabaletak larunbatean jokatu zuten partida epikoak bildu zituen ikusle gehien -156.000 ikusleko audientzia metatua-, eta igandean Altunak eta Dariok jokatuakoko 118.000 ikusleko audientzia metatua lortu zuen, enpresendako guztiz arrakastatsua.

Datu eder horiek ez dute pilotarien eta pilotazaleen artean sortu den kezka estaltzen. Pilotariek eutsiko ote diote? Final laurdenetako hiru jardunaldiak, finalerdiak eta finala lesiorik edo eskuko minik gabe gaindituko dute? Psikologikoki ere ez ote da gehiegi?



Ezkurdia eta Zabaleta. IÑAKI PORTO

Altuna oso kritikoa izan zen txapelketaren aurkezpenean, eta halako erabakiak hartzeko "pilotarien iritzia" kontuan hartu behar dela azaldu zuen. Pilotari gehienak iritzi berdinekoak dira. Partida eta partida artean atse-

den gehiago hartzea nahiko lukete gehienek, eta arazoren bat izanez gero, atzerapenen bat eskatzeko aukera. Baina aurkezpenean argi geratu zen finala maiatzaren 29an jokatu dela Nafarroa Arenan, eta ez dela data mugituko.

Urrezko puntuak

Aurreko asteko jipoi fisiko eta mentaletik guztiz osatzeke, bigarren jardunaldia jokatu da. Rezustak Artola izango du aurkari ostiralean Oiartzunen, eta larunbatean Labritek Lasoren eta Jakaren arteko lehia hartuko du. Altuna eta Ezkurdia igandean lehiatuko dira, Eibarren, eta asteartean, Legazpin, Zabaletak eta Dariok jokatu dute. Lau partidek ikusmina sortu dute, Altunak eta Martijak jokatu dutenak bereziki. Arbizuarrari soilik Buruz Buruko txapela falta zaio, eta Altunak eragotzi dio. Urrezko puntua dago jokoan, gainontzekoak bezala.



Lazkoz, Iker Pourekin. UTZITAKOIA

Eskaladan trebatzeko aukera eskaini du Mank-ek

ESKALADA Ion Gurutz Lazkozek 12 urtetik gorakoak maiatzaren 13tik 15era trebatuko ditu

Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioko presidente Martin Montañes Alsasuak Sakanako Ibilaldiaren aurkezpenean federazioan duten kezka plazaratu zuen. "Geroz eta jende gehiago doa mendira eta eskalatzera batera ezagutzarik gabe, eta horren ondorioz mendi istripuen kopuruak nabarmen egin du gora". Federaziotik makina bat ikastaro antolatzen dituztela azaldu zuen, eta hasiberriei trebatzeko eskaera egin zien.

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak urtero antolatzen du eskalada ikastaroa. Aurten ere horrela izanen da. Ion Gurutz Lazkoz Martinez eskalatzailer arbizuarrak eskainiko du, maiatzaren 13tik 15era. Maiatzaren 13an saio teorikoa izanen da Mank-en egoitzan, eta maiatzaren 14an eta 15ean eskalada praktikak, Uharteko Arakilen edo San Fauston (Eraul). "Hastapeneko ikastaroa da, eta helburua aitzan eskalatzeko oinarriko ezagupen eta teknikak lortzea da" azaldu du Mank-eko teknikari Amaia Gerrikagoitiak.

Ikastaroan izena ematea zabalik dago maiatzaren 10era arte, Mank-eko Kirol Zerbitzuan. Prezioa 39 eurokoa da, eta 12 urtetik gorako edozein interesatuk eman dezake izena.

Naiara Diez, Malosten beti

SASKIBALOA Zortzi urtez Lointek Gernikako kapitain izandako Naiara Diez Fernandezek omenaldi beroa jaso zuen igandean. Altsasuarrek betirako jarraituko du Malosten, haren kamiseta zintzilikatu baitute. "Zorionekoa naiz, nire ametsik ederrenetan ere ez bainuen imajinatzen hau guztia posible izango zenik" eskertu zuen.



LOINTEK GERNIKA BIZKAIA



Manolo Moreno, Mikel Goldarazena, Doris Vicente, Martin Montañes eta David Malo, Iratxo elkartearen egindako aurkezpenaren.

1.174 mendizale Iratxoren Sakanako Ibilaldiaren itzuleran

MENDIA Irurtzango Iratxo Elkarteak antolatutako mendi martxa ezagunak betiko erakargarritasuna duela agerian geratu da. Irurtzun larunbatean "mendizaletasunaren festa handia" izatea nahi dute, eta izena ematea itxita dagoela gogoratu dute

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN Beldur pixka bat omen zuten. Bi urteren ondoren buelta nolakoa izanen ote zen. Mendizale asko animatuko ote ziren. Are gehiago aurtun egunean bertan Sakanako Ibilaldian ezingo dela izena eman kontuan hartuta. Asteartean itxi zuten epea, eta larunbateko 31. Sakanako Ibilaldia, aurrekoak bezala, arrakastatsua izanen da. "Hasieran mantso joan zen, baina azken aste hau eromena izan da. 1.174 mendizalek eman dute izena eta oso kontentu gaude" adierazi du Iratxo elkartearen Doris Vicentek. Hainbat kirol ekitalditan beharrekada sumatu bada ere, Euskal Herriko Mendi Ibilbideen Zirkuiturako eta Nafarroako Iraupen Luzeko Mendi Ibilaldien Txapelketarako puntuagarria den Sakanako Ibilaldiak betiko erakargarritasuna du.

Hiru ibilbide, betikoak Sakanako Ibilaldian hiru aukera daude: Sakanako Ibilaldi Luzea (54 km, 3.388 metroko desnibel positiboa: Urrizola, Txurregi, Beriain, Uharte Arakil, Aralarko San Migel, Ata, Madotz, Latasa, Larrazpil, Trinitatea); Sakanako Ibilaldi Motza (25,5 km, 1.440 metroko desnibel positiboa: Etxeberri, Itxasperi, Madotz, Larrazpil, Latasa, Trinitatea) eta Ibilbide Txikia (14 km, 730 metroko desnibel positiboa, Trinitatea, Latasa, Arrantzaleen xenda, Irurtzun). Mendizale gehienek, 550,

"SAKANAKO IBILALDIA MENDIZALETASUNAREN FESTA IZATEA NAHI DUGU"
MIKEL GOLDARAZENA

Ibilaldi Motza aukeratu dute. "Esaten digute Ibilbide Motzari izena aldatu behar diogula. 25,5 kilometro eta 1.440 metroko desnibel positiboa duen ibilaldia ezin diogula Ibilbide Motza deitu" azaldu zuten irribarrez, astearteko aurkezpen ekitaldian, Iratxoko Manolo Morenok. Ibilaldi Luzea 404 mendizalek egingo dute eta Ibilbide Txikia egiteko prest daude 220 mendizale gazte, eta haien familiak. Hiru ibilbidetan ez dituztela aldaketarik egin gaineratu zuten Morenok, "mendizaleei dauden bezala gustatzen zaizkielako. Ibilaldi ederrak dira hirurak, aitzakiarik gabekoak".

Hiru ibilbideak Atakondoa ikastetxetik abiatuko dira larunbat goizaldean. Ibilbide Luzea 6:30ean, Ibilbide Motza 7:30ean eta Ibilbide Txikia 9:30ean.

Naturarekiko errespetua

Sakanako Ibilbideak zenbait balore sustatzen dituela azaldu zuten Iratxoko Mikel Goldarazena. Naturarekiko errespetua azpimarratu zuen. "Gurea bezalako kirol ekitaldi handietan hornidura guneetan elikadura eta edari asko eskaintzen dira. Sakanako Mankomunitatearekin batera, elkarlanean, guztia ongi birziklatzeko esfortzua egingo dugu, elementu bakoitza dagoen edukiontzian jasotzeko" azaldu zuen. Ildo honetan, Doris Vicentek mendizaleei norberak bere edalontzia edo botila eramatea eskatu zien, birziklapenean aurrerapausua emateko. Eta "guztia zegoen bezala" uzteko konpromisoa azaldu zuen. "Guk ez dugu inoiz ibilbidea pinturarekin markatzen, eta betiko bideak erabili eta markatzen ditugu, bide berriak ez zabaltzeko. Azken mendizaleak pasa bezain pronto hasten gara bidea markatzeko elementuak biltzen eta guztia jasotzen. Egunean bertan San Miguelerainoko bidea garbi uzten dugu eta hurrengo bi egunetan guztia bilduta geratzen da, badirudi ez dela martxarik izan" gaineratu zuen.

Sakanako Ibilbideak, bertako paisaia zoragarriak erakustez gain, bertako kultur ondarea agerian jartzen du: San Donato, San Miguel, Ergako Trinitatea eta Itxasperi baselizak, Agiri despulatua, Euskal Herriko Erdigunea, Larrazpil trikuharrria... eta euskararekiko konpromiso berezia du. "Gure hizkuntza egoera zailean dago eta Sakanako Ibilaldiak euskararen erabilera bulkatu nahi du" azaldu zuen Goldarazena.

Mendizaletasunaren festa

Sakanako Ibilaldia ez da lehia-keta bat, mendizaletasunaren festa baizik. "Kirol ekitaldi garrantzitsua da, parte hartze handia duena, baina guztiaren gaitetik mendizaletasunaren festa izatea nahi dugu" aldarrikatu zuten. Bukaeran giro polita egongo da plazan, eta haurrendako rokodromoa eta beste antolatutako dituzte.

"ENTZUTETSUA DEN MENDI MARTXA BERRESKURATZEAGATIK POZIK GAUDE"
MARTIN MONTAÑES

Hiru Mendi Zerrak, hurrena

Maiatzaren 7an Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatutako Hiru Mendi Zerrak mendi martxaren txanda izango da. Bi ibilbideren artean aukeratu daiteke, eta maiatzaren 5era arte eman daiteke izena Zirkuitua webgunean.

Erreleboa badago

Guztia antolatzeko larunbatean ehundik gora boluntario ariko dira lanean. Horrek "auzolanaren garrantzia" erakusten du. Ildo honetan, Iratxo elkartera 20tik gora bazkide berri sartu direla eta Sakanako Ibilaldian guztiz inplikatu direla azaldu zuten. "Erreleboa dugu, eta hori oso garrantzitsua da" nabarmendu zuten.

Aurkezpena Nafarroako Kirol Institutuko ordezkari David Malo hurbildu zen. Sakanako Ibilaldia aurrera ateratzeko lan egiten zuten boluntario, babesle eta laguntzaile guztiei eskerrak eman zizkien. "Ekitaldi honek 1.000 pertsona baino gehiago mugitzen ditu eta herrira onura besterik ez du ekartzen. Iratxo elkarteak egiten duen lana eskertu beharrekoa da. Bi urteko geldialdiaren ondoren, guztia normaltasunera itzuli dela ikustea sekulako albiste ona da" azaldu zuen.

Mendizaletasunak, gora

Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioko Martin Montañes presidentek Euskal Herrian "enblematikoa" den mendi martxa berreskuratzeagatik eskerrak eman zizkion Iratxori, eta elkarteak segurtasuna bermatzeko eta ingurugiroa zaintzeko hartzen dituen neurriak eskertu zituen. Pandemiaren ondoren Nafarroako mendi martxa gehienak mantendu direla nabarmendu zuen, "urtean 10-12 dira". Mendi lasterketek gora egin dute, eta pandemiagatik "mendizaletasunak gora egin du nabarmen. 2021ean 14.210 federatu izan genituen, eta aurtun 13.300 daramatzagu". Baina guztia ez da ona, mendian esperientziarik gabeko jende asko ibiltzeak "is-tripua ugari" ekarri dituelako.



Maiza, dominarekin, eta Vergara. UTZITAKOA

DUATLOIA Maiza eta Vergara, Europako Txapelketara

Asteburuan Espainiako Duatloi Txapelketa jokatu zen Avilésen. Larunbatean adin tartekako txapelketak jokatu ziren. Eguraldi petralagatik, proba arratsaldera atzeratu behar izan zuen antolakuntzak, eta distantzian ere aldaketak egin zituzten. Super sprint distantzian aritu ziren duatletak: 2,8 km korrika, 10 km bizikletan eta 1,2 km korrika. Hala ere, euriari eta gogor jotzen zuen haizeari aurre egin behar izan zieten duatletek. 55 eta 59 adin tarteko sailkapeneko txapelduna Sakana Triatloi Taldeko Juan Luis Maiza Begiristain etxarriarra izan zen (36:25), eta 65 eta 69 adin tarteko mailan Peio Vergara altsasuarra bosgarren sailkatu zen (44:11). Egindako lan bikainari esker, Maizak eta Vergarak irailean Bilbon jokatuko den Europako Duatloi Txapelketarako txartela lortu zuten. Egindako lanarekin "oso pozik" dago bikotea, eta Bilbon lan ona egiten badute, Ibizan jokatuko den Munduko Txapelketako txartela lor dezakete.

ATLETISMOA Ziordia eta Aitzkozar lasterketak bueltan dira

Ekainaren 4an XI. Ziordiko Lasterketa Solidarioa jokatuko da. Haurren probak 17:00etan hasiko dira, martxa solidarioa 17:30ean eta helduen lasterketa 18:00etan. Izena ematea zabalik dago Ziordiko Running Taldeak WIX plataforman duen webgunean. Bestalde, Aitzkozar Herri Krosa ekainaren 11n jokatuko da, aurten Bakaikun.



Josefina Arregi Klinika I. Alzheimer Herri Lasterketako antolatzaileak, babesleak eta laguntzaileak.

Oroitzapenen alde korrika egitera

ATLETISMOA Felipe Lezea Fundazioak Josefina Arregi Klinika I. Alzheimer Herri Lasterketa antolatu du maiatzaren 22rako Altsasun, hiru modalitatetan: korrika, oinez edo Km 0 izeneko dortsalaren bidez. Izena ematea zabalik dago eta parte hartzerantz animatu dute

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Josefina Arregi Klinika I. Alzheimer Herri Lasterketa maiatzaren 22an jokatuko da, Altsasun. Felipe Lezea-Josefina Arregi Klinikak antolatu du, hainbat entitatekin laguntzarekin: Laboral Kutxa, Altsasuko Udala, Dantzaleku Sakana Atletismo Kluba, Lacturale, Radvi hortalizas, Katealde eta Leku Ona jatetxea. Guztiek "Zure oroitzapenak zeharkatzen" leloa duen lasterketan parte hartzerantz animatu dituzte sakandarrak.

Alzheimer gizarteratu

Felipe Lezea Fundazioko patronatuko buru Joseba Arregik azaldu zuenez, lasterketak hiru modalitate izango ditu: oinezko martxa (8 km), lasterketa (9,5 km) eta 0 Km dortsala, kirol ekimenean parte hartu nahi ez, baina euren alea jarri nahi dutenentzako. Lasterketaren helburu nagusia Alzheimer gaixotasuna gizarteratzea da, eta aldi berean kirola eta ohitura osa-

zungarriak sustatu nahi dituzte, "gaixotasunaren prebentzioa egiteko modu onena" direlako. "Alzheimerak oroitzapenak ikusezin egiten ditu. Lasterketaren lehen edizioa da hau, baina denboran iraun dezan nahi dugu. Pertsona askok sufritzen dute gaixotasun hau, eta lasterketarekin gaitzaren inguruan kontzientziatu nahi dugu" nabarmendu zuen.

Poztasuna

Laboral Kutxako Altsasuko bulegoko zuzendari Izaskun Erdozia adierazi zuenez, "Laboral Kutxarendako erabateko poztasuna da Josefina Arregi Klinikak antolatutako lasterketan laguntzea. Gurea proiektu kooperatiboak da eta balore kooperatiboak lantzen ditugu; bestelako banka da. Horregatik, begi oinez ikusten dugu lasterketa, eta bertan parte hartzerantz animatzen dugu jendea. Probak arrakasta itzela izatea eta edizio gehiagotan elkar ikustea espero dugu".

Oinez, korrika edo 0 dortsala

Dantzaleku Sakana Atletismo Klubeko lehendakari Iñigo Agirrek ibilbidearen zehaztasunak eman zituen, klubeko kide eta Josefina Arregi Klinika I. Alzheimer Herri Lasterketako koordinatzaile Peio Vergararekin batera. Maiatzaren 22an, igandearekin, 11:00etan oinezko martxa abiatuko da (8 km), Josefina Arregi Klinikatik, Ollerosorotik, Sakanako Trikitixa Eskolaren trikiti doinuak lagun. "Zelai eta Gartzia Ximenez kaleetan barna plazara iritsiko da. Gero Otadiatik Basomuturrera eta ikastola eta institutu arteko errepidetik, Larresaletik, Azuntzartera egingo du, Ulaiar Txikitik Murgilartera iritsi eta Baikolarretik bar-

LASTERKETAREKIN ALZHEIMERRA GIZARTERATU NAHI DA ETA KIROLA SUSTATU, PREBENTZIOARIK ONENA

na Klinikara heltzeko. Ibilbide ederra da" azaldu zuen Vergarak.

Lasterketa 12:00etan hasiko da Josefina Arregitik. 9,5 km ditu, eta lehendabiziko kilometro eta erdia neutralizatutako proba izango da. "Korrikalari guztiek batera osatuko dute lehen tarte. Isidoro Melero kaletik sartuta, San Juan kaletik Idartzagainera heldu eta Bakea kaleraino helduko dira, Alzaniatik San Juan kalera heldu eta Gartzia Ximenez kaletik plazara iristeko. Hilerrri parean benetako lasterketa hasiko da, eta hortik aurrera oinezko ibilbide berbera osatuko dute korrikalariak, klinikako helmugaraino" gaineratu zuen. Iñigo Agirrek argi utzi zuenez, lasterketa ez lehiakorra izango da, ez da sailkapenik egingo.

Izena ematea zabalik

Lasterketan izena ematea zabalik dago Josefina Arregi Klinikako webgunean edo klinikako bulegoetan maiatzaren 20ko 15:00ak arte. La Morea merkatalgunean ere izena emateko aukera egongo da apirilaren 30ean eta maiatzaren 7an eta 14an. Prezioa 10 eurokoa da, modalitate guztietan, eta trukean kamiseta jasoko da. 15 urtetik beherakoek dohain parte hartu ahal izango dute, baina kamiseta nahi izanez gero 10 euro ordaindu beharko dituzte. Partaide guztiek Lacturale eta Radvi Hortalizas produktu sorta jasoko dute, eta adin gehiena dutenek Katealde produktu sorta. Horretaz gain, partaideen artean Etxarri Aranazko jatetxe batean eta Altsasuko Leku Ona jatetxean otordu bana zozketatuko da.

Klinikako proiektuetara

Jasotzen dena Josefina Arregi Klinikako eguneko zentroan egin nahi diren handitze eta berrikuntza lanak aurrera eramateko bideratuko dira. Klinikako kudeatzaile Angel Gardachalek adierazi zuenez, aipatu lanak aurrera ateratzeko Nafarroako Gobernuari diru laguntza eskatu zaio, Eskubide Sozialetako Departamentuaren bidez, eta erantzunaren zain daude. "Josefina Arregiko eguneko zentroa Sakanan dagoen bakarra da, eta instalazioen berrikuntza oso garrantzitsua da. Halaber, beste bi proiektu ditugu, osasun ekipamendua berritzea eta gaixoen dako patio berri bat egitea, guztiak ezinbestekoak" azaldu zuen.



Eneritz Karasatorre Araña, Jurramendi Trailean ahalegin betean. JURRAMENDI TRAIL

"Espainiako Trail Runninga esperientzia itzela izango da"

ENERITZ KARASATORRE ARAÑA MENDI KORRIKALARIA

MENDI LASTERKETAK Maiatzaren 7an Federazio Autonomikoen Arteko Espainiako Trail Running Txapelketan parte hartuko du, Goikoetxearekin eta Gasanzekin batera

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ Eneritz Karasatorre Araña maiatzaren 7a koloreztatuta du: Federazio Autonomikoen Arteko Espainiako Running Trail Txapelketa jokatu da Bergan (Bartzelona). Nafarroako Txapelketan egindako lanari esker bertan parte hartzeko txartela lortu zuen Karasatorrek, Dantzaleku Sakana Eukeni Goikoetxea eta Javi Gasanz taldekideekin batera. **2019ko Etxarri Aranazko Mendira Joan Etorrian izan genuen zure berri. Noiz hasi zinen korrika?**

Gutxi lehenago. 2018an aitonari esan nion Etxarriko lasterketan parte hartuko nuela, baina ezin izan nuen aritu, orkatilean nuen arazo batengatik. Handik gutxira aitona hil zen, eta 2019ko Mendira Joan Etorrian horregatik

"AITONARI ESAN NION ETXARRIKO PROBAN PARTE HARTUKO NUELA; BERE OMENEZ HASI NINTZEN"

parte hartu nuen proban, bere garaian aitonari egingo nuela esan niolako. Bere omenez hasi nintzen.

Aitonak aurretik proba horretan korrika egin al zuen?

Aitonak ez. Mendira Joan Etorriko lehendabiziko edizioan osabak parte hartu izan zuen, eta bertan aritzeko ilusioa nuen. Bizi osoa ibili izan naiz mendian, baina inoiz ez nuen korrikarik egin. Orduan hasi nintzen mendian korrika egiten eta mundu horretan barneratzen.

Lehendabiziko lasterketa horren zein oroitzapena duzu?

Lasterketa gogorra da, esplosiboa, hasieratik topera ibili behar duzulako. Gogorra izan zen, baina bukatu nuen eta kontentu. Oroitzapen ona dut. Dena den, nahia go ditut lasterketa luzeak.

Berehala konfinamendua iritsi zen. Beraz, gelditu behar.

Nire kabuz jarraitu nuen mendira joaten, baina 2020an ez nintzen lasterketan aritu. Egia esan, oso lasterketa gutxi egin ditut. 2021ean hiru lasterketan aritu nintzen: Etxarri Aranazko biak, Triku Trail eta Mendira Joan Etorria, eta Uharte Arakil-Beriain Km Bertikala. Aurten, momentuz, hiru egin ditut.

Aurten eman duzu saltoa, eta nolakoa. Betagarri Trailean (24 km) eta Jurramendiko Trailean (26 km) bigarren izan zinen. Zer aldatu da zu podiumetan ikusteko?

Ez dakit. Niretako arraroena etxetik kanpoko probatan aritzea izan da, ezagutzen ez ditudan ibilbideetan lehiatzea. Podiumaren kontua ez zait asko gustatzen, lotsa ematen dit. Jurramendi Traila eromena izan zen. Korrikalari pilo bat geunden eta lehengo bi kilometrotan sekulako tapoia egin zen. Iruditzen zitzaidan mundu guztia ni baino arerrago zegoela. Gutxika, erremontatzen hasi nintzen, eutsi nuen eta bigarren sailkatu nintzen, Ainara Alkuazen atzetik. Ez nuen espero.

Nafarroako Trail Txapelketan, Leringen, seigarren sailkatu zinen.

Leringo Traila aldi berean Nafarroako Trail Txapelketa zen. Nafarroako Atletismo federazioak antolatutakoa. Atletismo federazioak antolatutako lasterketak ezberdinak izaten dira mendi federazioak antolatutakoekin alderatuta. Ez dute desnibel handirik izaten eta gehienbat korrika egitekoak dira. Nik nahiago ditut besteak, desnibel handiagoa dutenak. Seigarren izan nintzen, eta kontentu. Ondoren Atletismo Federazioaren deia jaso nuen, maiatzaren 7an Bergan jokatu den Espainiako Trail Txapelketan Nafarroako taldearekin aritzeko. Hau ere ez nuen espero.

"ESPAINIAKO TRAIL RUNNINGA ESPERIENTZIA BERRIA IZANGO DA, ALDE GUZTIETARA"

Espainiako Trail Txapelketa nolako lasterketa izango da?

Pirinioetan jokatu da, 2.000 metroko altueran. 30 kilometroko proba da, esan didatenez, nahiko gogorra, desnibel handikoa. Beraz, lasai hartu behar da. Nik halako probak nahia go ditudanez, alde horretatik ongi. Lasterketa ongi bukatzea eta disfrutatzea, hori da nahi dudana. Pirinioak dira eta proba ederra izango da.

Eukeni Goikoetxea eta Javi Gasanz aitsasuarrak taldekide dituzu.

Eukeni eta biok 30 kilometroko proban parte hartuko dugu baina Javi, gazteagoa denez, juniorren mailan dago eta distantzia laburragoa egingo du. Biak oso indartsu ikusten ditut; euren beste maila bat da. Asteburu honetan Nafarroa ordezkatu duten korrikalarien topaketa egingo da baina nik ezingo dut aritu, lan egin beharra dudalako. **Izan ere, 22 urte dituzu, ikaslea zara eta familiaren tabernan, Xapateron lan egiten duzu. Nola bateratzen duzu guztia?**

Aste sei aldiz entrenatzen dut, goizetan, 20-30 kilometroko entrenamendu luze bat eta gainontzekoak laburragoak. Igandetan ez dut entrenatzen. Ikasketak online egiten ditudanez, ongi antolatzen naiz. Bestalde, lan egiten dudan asteburutan lasterketaren bat badut txandak aldatzen ditut eta ahal dudan moduan moldatzen naiz.

Gertukoek zer diote?

Nahiko parrandazalea izan naiz eta ez zuten pentsatzen korrika horren serio ibiliko nintzenik. Nik ere ez nuen espero, ez pentsa! (kar, kar). Gustura nagoela ikusten dutenez, animatzen naute. Lasterketetara etortzen dira, aita bereziki.

Espainiako Txapelketara Nafarroako talde guztia batera joango zarete?

Bai. Bi furgoneta alokatuko dituzte eta talde guztia elkarrekin joango gara, ostiraletik igandera. Esperientzia berria izango da, alde guztietatik begiratuta. Jende berria, toki berria, Pirinioak... oso gogotsu nago.

Espainiako Trail Txapelketaren ondoren, zer?

Bartzelonatik bueltan Atarrabia Trailen parte hartuko dut eta ekainean beste bizpahiru lasterketa egin nahiko nituzke, Triku Trail eta Lakuntza-Aralar tartean. Ondoren ziurrenik irailera arte geldituko naiz.



Kadete mailakoak, proba hasteko prest. NAFARROAKO PISTA SELEKZIOA

Goikoetxea, Beltran eta Berastegi, pistard bikainak Madrilen

PISTA Kadete mailako hirukote sakandarrak Nafarroa ordezkatu zuen Espainiako Pista Txapelketan

Aste Santuan Espainiako Pista Txirrindularitza Txapelketa jokatzen Galapagarren (Madril). Nafarroako selekzioak hamalau txirrindulariz osatutako pista selekzioa osatu zuen txapelketarako, sei junior mailan eta zortzi kadete mailan. Kadeteen taldean hiru txirrindulari sakandar aritu ziren: Siets Goikoetxea urdiaindarrak, Ane Beltran de Heredia altsasuarrak eta Ane Berastegi arbizuarrak, hirurak Joselin txirrindularitza klubekoak.

Esperientzia bikaina

Sakandarrek modalitate ezberdinetan parte hartu zuten. Banakako jazarpen proban Ane Berastegi bosgarren sailkatu zen, banakako kanporaketa proban Siets Goikoetxea zortzigarren eta banakako puntuazio proban Ane Berastegi hamargarren. Taldekako abiadura proban Ane Berastegi, Siets Goikoetxea eta

Irene Bona laugarren sailkatu ziren, podiumetik oso gutxira.

Espainiako Pista Txapelketa "esperientzia paregabea" izan da sakandarrendako. Galapagarren bizitakoarekin kontentua itzuli dira, baita haiek animatzera hurbildu ziren senitarkeoak ere. Pistako probak azkarrak dira, biziak, eta taldekakoak are ikusgarriagoak. "Brontzea behatz puntetan izan zuten, baina azkenean ezin izan zituzten dominak Sakanara ekarri. Datorren urtean emaitzak hobetzeko motibazioarekin itzuli dira gure txirrindulariak" azaldu dute senitarkeoek.

Nafarroako pista selekzioak 12 domina ekarri ditu Galapagarretik: urrezko bost, zilarrezko hiru eta brontzezko lau, eta balorazioa, jakina, ezin hobea da. "Datorren belaunaldiarekin Nafarroako pista selekzioak etorkizun paregabea du" adierazi dute hautatzaileek.

Lasa eta Martiarena, Olaztiko euripean onenak

AUTOMOBILISMOA Euriak baldintzatu zuen IV. Olaztiko Rallysprinta. 32 taldek proba bukatzea lortu zuten, baina 14 talde erretiratu egin ziren. Sakana Motorsporteko Eneriz Besga eta Asier Azkargorta izan ziren sakandar onenak, euren mailan lehenak

Eguraldiak ez zuten batere lagundu, euria eta haizea izan baitziren protagonistak, baina motorzaleak ez ziren kikildu eta guztira 46 taldek parte hartu zuten Sakana Motorsportek larunbatean antolatutako IV. Olaztiko Urbasa Rallysprintean.

Partaideek lau aldiz osatu behar izan zuten ibilbidea. Euriak guztiz baldintzatu zuen lasterketa. Errepidea bustita egoteak makina bat buruhauste sortu zien pilotu eta kopilotuei, baina gidatzeko zailtasun horrek, agian, erakargarriago egin zuen proba.

Ibilbidea Olaztiko herri gunean hasi, eta kale estu eta bihurtuek pasatu eta gero, kiroldegitik gora egiten zuten, Altamiraraino, eta atzera ere Olaztira jaisten zen.

Lasterketari eta eguraldiari hobeki egokitu zitzaizkionak Ioar Motor Sport eskuderiako Joseba Lasa pilotua eta Maitane Martiarena kopilotua izan ziren (BMW M3 E36). Ibilbideko lau denborak batuta, 15 minutu eta 47 segundotan osatu zuten proba (15:47.000), Malerreka Motorsporteko Daniel del Villarri eta Helena Carrascori 12 segundo aterata (15:59.000). Esan beharra dago 32 taldek lortu zutela proba despeditzea, 14 talde erretiratu egin baitziren.



Iban Lopez de Goikoetxea eta Javier Fernandez, Altamira jaisten. AVM

Sakandarrak, denetatik

Sakandarrei dagokienez, Sakana Motorsport taldeko Eneriz Besga pilotua eta Asier Azkargorta kopilotua izan ziren azkarrenak (Citroën Saxo VTS). Olaztiarrak zortzigarren sailkatu ziren (17:14.300), euren kategorian, bigarren klaseko 2 mailan lehenak. Malerreka Motorsporteko Alvaro Gutierrez eta berarekin bikotea osatu zuen Iñigo Galarza kopilotu iturmendiarrak (Citroën Saxo VTS) hamargarren sailkatu ziren (17:16.400). Sakana Motorsporteko Mikel Mendinueta

eta Jon Zelaia (Peugeot 205 GTi) hamabosgarren izan ziren (17:59.600) eta Ander Gurmindok eta Asier Cruz (Renault Clio Sport) hamazazpigarren (18:08.000).

Aldiz, Iban Lopez de Goikoetxea eta Javier Fernandezek (Renault 5 GT Turbo) matxura izan zuten lehen tramoan, eta hirugarrenean proba utzi behar izan zuten. Iker Askargorta eta Aja Wilde (Opel Astra) lehen tramoan erretiratu ziren eta Asier Juanez eta Josu Olmos (Clio Sport) hirugarren tramoan, hainbat matxurengatik.

Txanponaren bi aldean daude txirrindulari sakandarrak

TXIRRINDULARITZA Martinez Nafarroako txapelduna da, Unzilla gorenean dago eta Tadeo eta Agudelo, lesionatuta

Maider Betelu Ganboa SAKANA

Junior mailako txirrindulari sakandarrek zerua eta infernua ezagutu dute azkenaldian. Txanponaren alde ilunean daudenak Aimar Tadeo (Sakana Group) eta Iker Agudelo (Quesos Albeniz)

dira. Martxoaren 27an eroriko gogorra izan zuen Agudelo altsasuarrak Azpeitian, eta osatzen dago. Apirilaren 14an Durangon jokatuak lasterketan erori zen Tadeo lakuntzarra. Lepauztaia apurtu eta ebakuntza egin eta

gero, osatzen ari da. Lasterketa horretan Sakana Groupeko bere taldekide Mikel Unzilla hirugarren sailkatu zen. Denboraldi bikaina egiten ari da etxarriarra. Asteburuan Nafarroako selekzioarekin parte hartu zuen Gipuzkoako Klasikoan, Europako nazioarteko txirrindulariekin batera, eta igandeko etapan lehen euskaldunaren saria jaso zuen.

Sakana Groupeko Adrian Martinezek irabazi zuen apirilaren 17an Lizarran jokatuak Nafarroako Errepideko Txapelketa,



Adrian Martinez, eskuinean. MARTIN EARLY

esprintean. Lakuntzarra Nafarroako txapelduna da.

Kadeteen mailan, Quesos Albenizko Iker Gomez altsasuarrak hirugarren sailkatu zen igandean Arronizen, eta bere taldekide Ekain Imaz bosgarren izan zen Zangoza Hiria Sari Nagusian. Aipatu bi txirrindulari hauek, euren taldekide Ion Aierbe eta Sakana Groupeko Oihan Gorriti Nafarroako kadeteen mailako selekzioarako hautatu dituzte eta aste honetan bertan entrenamendua izan zuten.

Harremanen mugimenduak

Iortia kultur gunean sortu zuten ikuskizunaren oinarria eta urte honetan zehar egonaldi horretan sortutakoari forma eman diote. Led Silhouette konpainia Altsasura itzuliko da, oraingoan, 'Los Perros' dantza emanaldia aurkeztera.

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

2021eko maiatza eta ekaina bitartean Led Silhouette konpainia osatzen duten Martxel Rodríguez eta Jon López dantzariak Nafarroako Gobernuaren DNA programaren arte egoitza egin zuten Iortia kultur gunean. Egonaldi horretan Los Perros ikuskizuna izanen zenaren sustraiak sortu zituzten. "Balio izan zigun lurra hartzeko eta proiektua nondik nora joango zen pentsatzeko". Urtean zehar beste bi egonaldi egin dituzte, Lesakan lehenengoan, konpainiaren egoitzan, eta Maiorkan bigarrena. "Pixkanaka garrantuz joan gara". Azkenean, apirilaren 17an mustu zuten lana, Lesakan, "etxean". Bihar, apirilaren 30, 19:30ean, Iortia kultur gunera itzuliko dira lana aurkeztera eta gaur ospatzen den Dantzaren Nazioarteko Egunaren egitarauaren barne.

Soinuak

"Altsasun bizitu genituen ikuskizunaren lehendabiziko egunak, eta orain aurkeztera itzuliko gara eta ilusioa egiten digu". Kultur gunean sortzen ari zireneko "ezjakintasuna" oroitzen dutela aipatu du Martxel Rodríguezek.

Sakanan igarotako denbora horretan, eta Betisa Anda Altsasuko kultur teknikariari esker, Altsasuko kanpai dorrean eta errepiketan egoteko aukera izan zuten. Tomas Ganboari kanpaijoleari Arruazun egin zioten omenaldian egon ziren ere. "Kanpaiekin bueltaka egon ginen, batez ere Sakanan egon ginen hilabete horretan. Zoritzarrez, edo horrela sortu delako, materialaren garestitzeagatik kanpaien fabrikazioaren ideia burutik kendu behar izan genuen". Nahiz eta kanpaiak bisualki ez egon,



'Los Perros' ikuskizunaren une bat. IRANTZU PASTOR

soinu konposizioan "ioareak, kanpai hotsak, ahotsak eta abar" entzun daitezke: "Jendeak ibararren soinuak aurkituko ditu".

Egonaldiaren azken egunean entsegu irekia egin zuten Iortia kultur gunean. "Hiru eszena aurkeztu genituen eta laneko metodologia azaldu genuen". Entseguan erakutsitako hiru eszenetatik bat guztiz kendu dute eta bi garatu dituzte. Egun berean Iskiza soinketa erritmikoko gimnastekin jardura egin zuten, programaren baitan antolatzen dituzten interbentzioetan. "Esperientzia polita izan zen. Normalean horrelakoak egiten ditugunean dantza taldeekin elkartzeko gara, baina pentsatu genuen interesgarria izanen zela Marcos Morau zuzendariaren estiloa hain birtuoso denez eta malgutasunari garrantzia handia ematen dionez, malguenak direnekin aritza interesgarria izanen zela". Oso gustura aritu zirela esan du Rodríguezek.

Harremanak

Los Perros ikuskizunak "gauza askori buruz" hitz egiten du. "Dantzatzeko dugun aldiro kristoren hustuketa da". Ikuskizunak bizitzaren etapa desberdinak erakusten ditu, eta eszenatokian bi dantzari dauden arren, López eta Rodríguez, elementu desberdinekin pertsonaia gehiago erakusten dituzte, gazteagoak eta helduagoak. Oier Zuñigaren ahotsak eta proiektioek "ildo jarraitzen" laguntzen dutela azaldu du dantzariak. "Bizitzaren etapa desberdinetan bikoteak, laguntasuna, fideltasuna eta maitasun harremanak eta horiek nola garatzen diren erakusten du". Bida bat bezala deskribatu du lana, "oso plastikoa dena, oso bisuala" eta, aldi berean, emozioekin konektatzen duena.

Marcos Morau koreografoa eta arte zuzendaria izan da. "Askotan esaten dute bere lanak hotzak direla, oso estetikoak direlako, ez da gure iritzia, kritikoei eta abar esaten dute. Lan honetan azpiko kapara iritsi gara, emozionalagoa den zerbaitera". Morauren eta La Veranole bere konpainiaren mugimenduak "lehorrak, zehatzak, motzak, disoziatuak eta abar" direla azaldu du Rodríguezek, eta hortik abiatuta landu zuten ikuskizuna. "Baina dramaturgiarekin eszena bakoitzean

gorputza ere modu desberdinetan landu dugu".

Laztanak deitutako eszena batean, esaterako, gorputzaren zatiak grabitatearekin eta berzearen inguruan pasatzean sortzen ahal diren mugimenduak landu dituzte: "Tranpantojoak edo egin ditugu, publikoa despistatzeko; norenak diren hankak edo besoak pentsarazteko". Testua batzuetan "nahiko iluna eta indartsua" da, eta bukaeran "argia" agertzen da: "Aretoko dantzen antzekoak egiten ditugu. Ospakizun bat da". Harremanetan sortzen diren momentu zailak erakusteko "biolentziarekin lotutako" mugimenduak dituzte, bortitzagoak. Beste eszena batean gorputzak "ia hildakoak bagina bezala manipulatu ditugu...".

Koreografian aspektu berriak esploratu dituztela azaldu du dantzariak. "Dantza garaikideak baditu pila bat aukera edo azpiestiloak deitu ditzakegunak. Jendea ohituta badago dantza garaikide mota batera, 1990ko hamarkadatik hemen gehiago garatu dena, agian honek aldaketa handia suposatzen dio oso plastikoa eta zinematografikoa delako".

Saria

Martxel Rodríguezek Nafarroako Talentu Artistikoa Sustatzeko Saria jaso du aurten. "Oso pozik gaude saritua dantzaren inguruko norbait izan delako. Normalean beste diziplina batzuk gehiago saritzen dira, eta ulertzen dugu, baina dantzak ere badu bere publikoa. Dantza garaikidea ez da komertzialena, eta dugu izatea nahi ere, baina errekonozimendua behar du". Batzuetan, "zertarako egiten dugu hau?" galderak sortzen direla aitortu du dantzariak, eta saria "hauspo" bat da.

Momentuz, Los Perros ikuskizunaren eta aurretik zituzten ikuskizunen emanaldiekin jarraituko dute. Udan dantza, arte plastikoak eta bideoa uztartzen duen ikus-entzunezko bat sortuko dute, sariaren baitan. "Arte historian zehar gorputza nola tratatu duten, kanonak... erakutsi nahi dugu".

"BIZITZAREN ETAPA DESBERDINETAN HARREMANAK NOLA GARATZEN DIREN ERAKUSTEN DU"



Besteak beste, liburu trukea egin zen Etxarri Aranazko Liburuaren Egunean.

Liburuak plazara atera zituzten Etxarriko Liburuaren Egunean

Ipuin kontalaria, herriko idazleen liburu sinadura eta liburu trukea izan ziren plazan

ETXARRI ARANATZ

Apirilaren 23an Liburuaren Eguna izaten da, eta horren harira ekimenak antolatuta dituzte zenbait herritan. Altsasun, esaterako, Liburuaren Astea egin dute aste honetan eta liburu aurkezpenak eta tailerrak izan dira, Irurtzunen liburu aurkezpen bat egin dute eta Arakilen poesia errezitala izan zen. Etxarri Aranatzek apirilaren 26an, asteartean, ospatu zuten Liburuaren Eguna. Aurreko urtean sortu zuten ekimena, baina pandemia zela eta, bertan behera utzi behar izan zuten.

Liburua naiz. Atzoko memoria, gaurko bizitza, biharko ametsa lelopean etxarriarrak eta bisitariak ipuin kontaketa saioa, idazleen sinadurak eta liburu trukea izan zituzten Etxarri Aranazko plazan.

Izaskun Mujika Mujika ipuin kontalariak eman zion hasiera Etxarri Aranazko Liburuaren

Egunari Lapiko magikoa saioarekin. Lapikoa Italiatik ekarri omen zuen, eta sorgin batena zen. Sorginaren istorioa eta hortik sortzen dena kontatu zuen Mujikak.

Ondoren, herriko idazleen liburu salmenta eta sinadura izan zen. Joxe Aldasoro eta Anaitz Igoa *Rolihlahla* haien lehenengo ipuin ilustratua sinatzen aritu ziren. Haurrek autoreekin liburuaz hitz egiteko aukera izan zuten. Jose Luis Erdozia haren liburuak sinatzen aritu zen ere, tartean Sakanako Mankomunitateak publikatutako *Sakanako euskal hizkerak (XXI. mendearen ezkaratzean)* azken liburua. Aurkeztu berri duten Etxarri Aranazko San Miguel irin-fabrika liburua sinatzen aritu zen Juana Mari Jauregi Flores. Bitartean, liburutegia bihurtutako plazan liburu trukea egin zuten etxarriarrek.

Eresia heriotzaren inguruko lan bat da, ohiko dolu erritoak nahikoak ez direnean sentsazioetik abiatuta: "Ama hil da, hori da egia. Kantu bat, dantza bat, erritu bat... lore bat eskaini nahiko nioke. Hildakoei gorazarre egiteko abesten ziren bertsoak dira Eresiak, baina nik jada, ez dut kanturik hildako ama agurtzeko", dio sinopsiak.

Datorren ostiralean, maiatzaren 6an, 19:00etan, *Aitzindariak* dantza ikuskizuna izanen da Etxarri Aranazko kultur etxean.

'Geuretik sortuak' ekimenaren 'Eresia' antzezlana Etxarri

Udalbiltzaren *Geuretik sortuak* ekimenaren *Eresia* antzezlana izanen da gaur, apirilak 29, 19:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean. Oier Zuñiga da zuzendaria eta Zuñiga bera, Eneko Gil eta Belen Cruz dira antzezleak. Antzezlana Bergara, Elgeta eta Antzuolan egingako arte egonaldian sortu zuten.

"Barrea bizitzan mugitzen nauen gauzarik handiena da"

LORENA ARANGOA ZABALETA CLOWN

Profesionalki alde batera utzi bazuen ere, irurtzundarrak ez dio inoiz clown izateari utzi. Badena da. 'Nire baitaturik' lana berregin, eta aurkeztuko du Irurtzunen

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN

Duela hamar bat urte sortutako *Nire baitaturik* ikuskizunarekin itzuli da Lorena Arangoa Zabaleta eszenatokietara. Clown-etik bakardadearen gaia lantzen du. Igandean, maiatzaren 1ean, 19:30ean, emanaldia egingo du Irurtzuno kultur etxean. Obra berdina bada ere, Arangoaren eta "pailazoaren" heldutasuna nabarmentzen da.

Zer da 'Nire baitaturik'?

Gaztelaniaz Ensimismada da. Bakardadeaz edo bakarrik geratzen zaren omentuaz hitz egiten duen obra bat da. Emakume gehienak bezala emozionalki dependentzia asko duen emakume bat da. Bakarrik gelditzen da eta bakardade horrekin nola bizi den eta, azkenean, gustura dagoela erakusten du. Horrela esanda badirudi drama bat dela, baina umorea da.

Nola eman diozu buelta dramari?

Dependentzia horiek edo bakardadeari beldur horiek gustuko ez ditugun pertsonekin edo gauzekin harremanak izatera eramaten gaituzte. Orduan, pertsonaia bakarrik gelditzen den momentuan hausnarketa egiten du eta pentsatzen du agian ez dagoela hain gaizki. Ez du asko hitz egiten, baina esaten duen gauza bakarrenetarikoa da: "Bakarrik, beno bakarrik, nirekin". Oso garrantzitsua da ere zurekin egoteko momentu horretaz disfrutatzea eta kudeatzen jakitea.

Nola sortu zenuen ?

Arte dramatikoak ikasi nuen, eta nire burua beti ikusten nuen Romeo eta Julieta eta horrelako drama erromantikoak egiten. Bat-batean, clown-a ezagutu nuen eta aukera asko ematen dituela ikusi nuen. Drama egin dezakezu, baina barre egiten. Bizitzan mugitzen nauen gauzarik handiena barrea da. Ongi sentiarazten nau, gustura nago barre egiten. Clown-a ezagutu nuen eta beste guztia utzi nuen. Ibizan Eric de Bonten eskolan egon nintzen, ikastaro handi bat egiten, eta itzuli nintzenean pentsatu nuen zerbait egin behar nuela. Antzerki eskolako interpretazio sailean Patxi Larreak clown-a ematen zuen, eta bera-ekin hitz egin nuen ea zerbait zuzenduko zidan esateko. Horrela sortu zen. Bakarrik nen-

"CLOWN-A NIRE BIZITZAKO MOTOREA DA; BIZIPOZA EMATEN DIDAN GAUZA GARRANTZITSUA"

"ESZENATOKIRA IGOTZEAN LEHEN NUEN SENTSATIOA ETA URDURITASUNA SENTITZEN DUT"

goenez, norbaiten esperoan egoteko ideia atera zen eta ikerketa lan bat egiten hasi ginen. Sekulako alde ikusten diot duela hamar urte egin nuenari eta orain egiten ari naizenari.

Zertan desberdintzen da?

Profesionalki emanaldiak asko gutxitu ditut, baina hamar urte hauetan ez dut clown-a utzi. Kristoren alde dago ni beste pertsona bat naizelako eta nire pailaza beste pailaza bat delako. Ikusten dut askoz gehiago betetzen dudala eszenatokia eta pertsonaiak potentzia askoz ere handiagoa duela orain.

Zergatik bakardadeari buruz hitz egin?

Ibizatik itzuli nintzenean oraindik amarekin bizi nintzen, 23 edo 24 urte nituen, eta orduan Lekunberri ondoan dagoen Arruiz herrira bizitzera joan nintzen, etxe txiki batera, bakarrik. Herrian banuen ezagunik, baina herri txikietan oso zaila da jendearekin elkartzeko. Ikusten nuen nire burua askotan leihotik begira eta norbait pasatzen zenean agurtzera eta denbora pasatzera jaisten nintzen. Bakardade hori bizi izan nuen momentu horretan eta, nik uste, hortik etorri zela. Ez nintzen oso kontziente izan sortzen ari nintzenean. Momentu horretan Rosa Legarrarekin ari nintzen. Psikologoa eta terapeuta zen, Bach loreekin eta horrelako terapiak egiten zituen ere,



Lorena Arango 'Nire baitaturik' ikuskizunean. ITZIAR MATXAIN

eta garai horretan berarekin terapian nengoen. Estreinaldira etorri zen eta esan zidan: "Terapia hau izan da". Horrelako lan bat egiten duzunean, bizitako egoeratan oinarritzen zara. **Zergatik berreskuratu duzu orain?** *Nire baitaturik* egin eta urtera fruta denda bat hartu nuen Iruztunen, nire bikotekidearekin. Bat-batean bizitza estabilizatu behar nueneko ideia sartu zitzaidan, eta hamar urte daromatzat dendarekin. Clown-a ez dut inoiz utzi; Iruztunen emakumearen egunean eta festetan eta abar emanalditxoak egiten nituen, baina pasa den urtean hasi nintzen jubilazioan pentsatzen. Eta adin honetan jubilazioan pentsatzen ari bazara... Askok gelditzen da! Agian fruta dendan ez negoela hain ongi pentsatu nuen. Horrelako erabaki bat harzeak beldurra ematen du ez dizulako stabilitatea ematen, ekonomikoa diot, emozionalki dena ematen didalako. Baina autonomia naizenez profesionalizatzeko ideia horrekin hasi nintzen. Uste nuen fruta denda uzten banuen, bikotekidea ere utzi behar nuela; denarekin apurtu behar nuela. Hau guztia bikotekideari ezer esan gabe pentsatzen nuen. Orduan, egun batean, bikotekideari nire asmoa planteatu nion eta esan zidan: "Zenbat bizitza dituzula uste duzu?". Bakarra nuela esan nion,

eta aprobetxatzeko esan zidan. Zeinen jatorra! Apostua egin nuen.

Hasiera berri bat da.

Koltxoi emozional bat badut; jende pila batek deitzen dit bere herrian zerbait egiteko. Zorte handia daukat. Hasi nintzen ere Estefania de Pazek *La reina del Arga* ikuskizuna egin duelako, eta euskaraz egin nahi zuten. Bera ez da euskalduna eta niri proposatu zidan. Bideo batzuk grabatzeko esan zidaten ere... Momentu egokia zela pentsatu nuen. Patxi Larrearekin hitz egin nuen ea *Nire baitaturik* berriz hartzera animatzen zen eta baietz esan zuten. Duela bost edo sei urte Sanjuenetan eszenografia guztia sutara bota nuen, garbiketa bezala, eta orain lana berreskuratzen dudala eszenografia berria egin behar izan dut. Oso ongi dago beste modu batera egin dugulako eta orain leku txikietan sartzen da. Nerabe puntu batekin nago, urduritasun hori sentitzen dut. Eszenatokira igotzen naizenean bertigo sentsazio hori badut, lehen nuen sentsazioa. Baina adinak eta urteak lasaitasuna ematen dizute ere. Lehen bakarrik nerbioak zeuden, orain plazera dago ere.

Esan bezala, clown-a ez duzu inoiz guztiz utzi. Trebatzen jarraitu du, ezta?

Ikastaroak ez ditut inoiz utziko. Clown-a nire bizitzako motorea

da; benetan. Clown-a sinplizitatea baina konplexutasuna da. Ez dakit nola azaldu ere. Bizipoza ematen didan gauza oso garrantzitsua da. Ezin nuen utzi. Askok gustatzen zait. Disfrutatzen dut. Ideia asko ditud, gainera. Udarako zerbait sortu nuen banekielako zerbait berria banuen herrietatik deituko nindutela. Gauza berriak egiteko ilusio hori izan dut beti.

Proiektu berriak dituzu buruan?

Nire baitaturik aretoetarako da eta kalera moldatzea zaila da leku intimo bat behar duelako. Patxi Larrearekin udarako istorio bat muntatzen ari gara, kalerako. Bigarren edo hirugarren aldia da elkarrekin lan egiten dugula, biak elkarrekin aritzen, eta tandem oso polita osatzen dugu. Oso ongi fusionatzen gara. Pertsonaia oso dibertigarriak ateratzen dira. Ez ditugu sudur gorriak erabiltzen, baina clown kodigoan dago.

Zer esan nahi du clown kodigoan egoteak?

Badaude clown mota pila bat. Ni ez naiz oso zorrotza horrekin. Pep Vilak kurtsoak eskaintzen ditu, batzuetan sudurrekin lantzen ditu eta beste batzuetan gabe. Bere ikastaroak Ergelkeria ikastaroak deitzen dira. Oso ongi definitzen du. Pailazioa txoroa da, beste mundu batean bizi da... Norbaitek behin esan zidan clown bati bonbilla bat izorratzen zaio-

aurpegi berdina zuen momentuoro, eta oso clown da ere.

Baina oso gai indartsuak lantzen dituzue?

Clown-a hitz batekin elkartu behar bada emozioa esango nuke. Emozio hori benetako emozioa dela esango nuke. Azkenean, publikoarekin ez bazara zintotasunez aritzen, ez baduzu egi hori transmititzen, jendea ez da sartzen. Bai dramen bai komedia hutsean ez duzu konplizitate hori lortzen egiatik ez badituzu gauzak kontatzen.

Umorea egitea drama egitea baino zailagoa da?

Denbora eta erritmo kontua da. Badaude ikerketa asko horren inguruan, oso gai ikasia da. Tempo deitzen denarekin zerikusia du. Erritmoa oso garrantzitsua da. Askok luzatzen den zerbaitek dramatikora jo dezake, baina luzatzen baduzu puntu jakin batera eta hor puskatzen baduzu, barrea sor dezakezu. Askok errazago dugu barrearekin konektatzea gutxiago kostatzen zaigulako. Nahiz eta dramatik etorri. Dramarekin konektatzea lan handia da, eta gero motxilarekin joaten zara etxera. Hemen asko nabaritzen da. Euskaldunak itxiak eta hotzak garela esaten dute, baina barre egiteko erraztasun handia dugu. Edozein egoera dramatikoa alde horretatik hartzen dugu; Vaya semanita-ren kasua hor dago.

Emakume pailazen elkarte

Orain dela gutxi Espainako estatuko emakumezko pailazoak online bidezko mahai ingurua egin zuten. Zazpi hizlari zeuden, tartean Virginia Imaz eta Esther Carrizo nafarrak. Emakume pila bat konektatu zirela azaldu du Arangoak. "Eztabaida oso polita sortu zen". Clown-aren munduan, "bizitzan eta arteetan bezala", emakumezkoak bigarren edo hirugarren postuan daudela eztabaidatu zuten. "Umorea jaialdietan emakume batek edo bik parte hartzen dute". Duela zenbait urte Pepa Planak emakumezko pailazen bilkura antolatzen zuen Andorran, baina azkenean "diru kontuengatik eta abarregatik" egiteari utzi zioten. "Geroz eta kartel gehiagotan gaude, baina nabaritzen dugu martxoaren 8rako eta azaroaren 25erako beti dugula zerbait. Baina urte guztian gaude".

Bilera horretan ere emakumezko pailazen Whatsapp talde bat sortzea proposatu zuten. Talde hauetan ezin diran 250 pertsona baino gehiago batu, eta dagoeneko Telegramera pasa behar izan dira. "Oso indartsua izaten ari da". Mundu osoko pailazoak batu dira. Portugalgoek, esaterako, elkarrekin bat dute. Momentuz, taldeak antolatzen ari dira: "Batzuek jaialdietan parte hartzen duten emakumezkoak begiratzen dituzte, beste batzuek emakumeak programatzen dituzte programatzaileak begiratzen dituzte...". Oso polita izaten ari dela, eta indarrarekin ari dela esan du irurtzundarrak.

"Haizerik ez egotearekin, konforme!"

Bakaikuarrak 1977an bueltatu ziren Hartzabalera, maiatza zutitzera. Ohitura igandean, atzera ere, berrituko dute. Bakaiku da bi maiatza handi jasotzen dituen ibarreko herri bakarra. Horretan aritzen denetako bat da Javier Kintana Urrestarazu

Alfredo Alvaro Igoa BAKAIKU

1 Aurten pagoa moztea tokatzen da?

Beharko! Joan den urtean aurreko urtekoa jarri genuen eta ez dugu maiatzik. Mendira igo eta eguraldi oso txarra dagoela ikusiz gero, aurreko urtekoa jartzen dugu. Lasai ibiltzea uzten duen eguraldia badago, pago berri bat mozten dugu.

2 Zein tamainako zuhaitza aukeratzeko duzue?

Gutxi gorabehera, 20 bat metroko luzera du. Mila kilo eskas izanen ditu. Hiruzpalauren artean mozten dute. Idoitxarren mozten dugu pagoa eta Hartzabalera eramane behar dugu, jartzeko. 800 bat metro daude bien artean.

3 Gero jartzen den tokiraino eramane beharra dago. Nola molatzeko zarete?

Basotik enborra arrastaka ateratzen dugu, soken laguntzaz. Larrean ere, zati batean, arrastaka eramaten dugu eta, ondoren, bizkar gainean jarrita eramaten dugu.

4 Enborra eramane eta jasotzeko zenbat zaudete?

Hogeiren batek eramaten dugu enborra. Goizean jende gutxi gaude. Hartzabalera iristerako jende gehiago dago, ikustera igo dena, eta edozein dago laguntzeko prest. Batzuetan 12:00etarako lanak despeditu eta gosaldutako.

5 Enborra zutitzeko jendeaz aparte, zer erabiltzen duzue?

Sokak, trokola (kabestrantea), metalezko sarde handiak, poleak eta enborra eskuz zutitzeko beharrezko guztiak. Aurten 45 urte betetzen dira maiatza jartzea berreskuratu genuela. 12-14 bat igotzen ginen eta halako zuhaitza

zutik jartzeko nahikoa indarririk ez genuen. Aurreneko urtean, ezjakintasunagatik, kostatu zitzaigun. Eta hurrengo urteetan trokola erabiltzea erabaki genuen. Eta ordutik urtero erabiltzen dugu. Metalezko sardeak mendian gordetzen ditugu. Duela lauzpabost urte berriak egin genituen, aurrekoak ustelduta zeudelako.

6 Berreskuratu aurretik, zenbat urtez egon zen maiatza jarri gabe?

25 edo 30 urte inguru egon zela kalkulatu dute. Mendian azienta genuen bakaikuarren artean maiatza berriro jartzeko ideia sortu zen eta berreskuratu genuen. Aurreneko bi urtetan ez nintzen etorri, apaizekin ikasten nengoen eta maiatzean etortzea ezinezkoa zen. Han bukatzean, 15 urterekin bueltatu nintzen eta urtero igo naiz.



Javier Kintana Urrestarazu, Hartzabal atzean, mendian maiatza jartzen den tokia.

7 Maiatza jasotzeko zein dira eguraldi baldintza onenak?

Okerrena haizea da. Eurria egitea baino okerragoa da haizea. Urteren batean elurretan jaso dugu maiatza. Baina okerrera haizea da, arriskuagatik. Onena da ez euririk ez haizerik ez egotea. Urteren batean izan da, baina ez urtero. Haizerik ez egotearekin konforme, eta euririk ez badu egiten, hobe!

8 Nor arduratzen da maiatza kentzeaz?

Maiatzaren 31n kentzen da, 18:00ak edo 19:00ak aldera. Boluntarioak joaten dira. Enborra lurtean gutxi sartzen denez, hari eusteko tenkatzeko hiru soka jartzen ditugu. Haietako bi askatu eta hirugarrenetik mendiantz tira egin eta enborra erori egiten da. Lurtean dagoela, jarri zaion tresneria guztia kentzen zaio eta gorde egiten da.

9 Sanjuanetan herrian maiatza bat jartzen duzue, zergatik?

Festak santiagotan ospatzen baditugu ere, San Joan da Bakaikuko patroia. Ez dakit maiatza zutitzearen esanahia zein den, baina herriko patroiarekin zerkusia izan dezake, San Joan egunez zutitzen baita. San Joan asteguna bada, larunbaterako uzten da. Betidanik jartzen zen.

Zenbait urtez jartzeari utzi zitzaion eta duela 20 bat urte berreskuratu zen. Gaur egun, zutitzen den egunean udalak auzatea eskaintzen du eta giro ederra egoten da.

10 Haurretan maiatza herrian jartzea ezagutu zenuen?

Bai. San Joan egunarekin izaten zen, meza nagusiaren ondoren. Ikasturte bukaerarekin bat egiten zuen eta suitzar opila eta txokolatina ematen ziguten eskolan egun hartan. Gaur egun umeendako jolas parkean zabuak dauden tokian zutitzen zen maiatza. Enborra eskolarantz etzanda zegoen eta handik egiten zuten indarra zutitzeko. Gaur egun jolas parkeko zuhaitzen ondoan, plazan jartzen da. Mendikoa igotzeko teknika bera erabiltzen da.

11 Noiz kentzen da?

Santiago, festak, pasata. Iturmendin bezala, garabia baten laguntzaz kentzen da. Horrela ez da zorua hausten. Garai batean pago egurrak asko balio zuen. Urteko kintoak arduratzen ziren zuhaitza ekartzeaz, hura botatzeaz eta saltzeaz. Diru hura Santa Agedarako-edo zen. San Joan egunez herrian jartzen zen zuhaitza kintoendako zen. Orain ez dakit zeinek mozten duen eta zeinendako den egurra.

Buletina prest duzu?

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



gk
 GISEINUA ETA
 KOMUNIKAZIOA

619 821 436
 Foru plaza, 23-1. Altsasu
 info@gkomunikazioa.eus
 www.gkomunikazioa.eus

